



24 tona elikagai eta elkartasun, Durangaldetik Saharara bidean

Durango • Río de Oren Elkartasun Karabanak martxoaren 9an hartuko du Tindufeko kanpalekuetarako bidea. Jasoriko elkartasuna "itzela" dela esan dute eragileek. • 4



"Pantailekiko dugun menpekotasunaz jabetu beharko genuke"

Elkarrizketa • Miren Ros hezitzaileak pantailen erabilerari eta umeen garapenari buruzko berbaldia emango du Elorrion. Martxoaren 7an izango da, 18:00etan, Arriolan. • 2-3

"Ohore bat da horrelako izena eta prestigioa dituen saria irabaztea"

Kultura • Zornotzako Javier de Pedro argazkilaria Irudi Profesionalen Espainiako Federazioaren (FEPFI) argazki lehiaketa irabazi du. • 24



Andragunea, 15 urtez emakumeak ahalduntzen



Durango • 2009ko martxoaren 7an loratu zen Andragunea Durangon. Harrezkero, apurka-apurka hazten joan da eta ehunka emakumeren babesgune bihurtu da. ANBOTO Kety Arrabal Navas eta Nagoire Uribe-Etxebarria Olabarrietagaz batu da. • M8 Gehigarria 13-21



Hiruzulo jaialdia 'Sustraien Matxinada' obragaz dator bueltan

Kultura • Jaizale elkarteak eta Durangoko Udalak gonbidatuta, Garikoitz Mendizabal txistulariak eta Gorka Hermosa akordeoilarik kontzertua emango dute San Agustinen. • 25

Otsailaren 29tik martxoaren 31ra

ZORABIATZEKO MODUKO ESKAINTZAK

%20ko* Deskontua zure sukaldeko altzarietan
Ikusi baldintzak zure Schmidt saltzailearekin





ipiniko dut eta kito. Baina hori arazoari ihes egitea da. Ez duzu arazoa kudeatzen. Eta berdin gertatzen da asperdurarekin. Egonean egon behar horrek ezintasuna sortu du nerabeengan, presioa. Azterketa baten aurrean urduri egotea, adibidez, normala da, baina gaur egun antsietate krisialdiak ikusten dira. Hortxe dago kontua. Geratu eta zeure buruari begiratzen ez badiozu, nola kudeatuko dituzu halako egoerak?

Sarean bikain irudikatzen da dena, perfektu, zimurrik gabe, baina gure bizitzak ez dira halakoak

Badago estatistikarik?

Ikerketa ugari dago. Nik, dena dela, smartphonea erosten denean ipintzen dut fokua. Hori izaten baita abiapuntu nagusia. Une hori 12-13 urterekin heltzen da normalean.

'Gure aukera, Guk 16' dinamika Zarauzko Salbatore Mitxelena ikastolako bost gurasok hasi zenuten, 2019an. Bost urte hauetan, bide horrek eman du fruiturik? Igarri duzue eginiko lanaren eraginik?

Bai. Lehen, ikastolako umeei Lehen Hezkuntzako seigarren maila amaituta erosten zitzaizkien mugikorrik gehienak. Gaur egun, Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzako lehenengo maila egiten dabiltzan ikasleen %90ek ez dute mugikorrik, eta ez dute izango, gutxienez, bigarren maila amaitu arte. Ildo horretan jarraitu gura dugu, mugikorraren erabilera atzeratzen. Hori datu bat da. Baina niretzat askoz ere inportanteagoa da umeengan, irakasleengan eta gurasoengan izan den begirada aldaketa. Nola daude ume horiek? DBHko lehen mailako ume horiek ume izaten jarraitzen dute. Elkarrekin jolasten dira, elkarrekin hitz egiten dute. Eta haien gertuko inguruak mugikorrik ez darabilenez, ez dute horretarako beharrik sentitzen. Hain da ideia sinplea! Lasai daude, ez dute behar. Izango dute gailuok erabiltzeko aukera. Eta hara, gu honekin hasi ginenean barre egiten ziguten.

Barre egiten zizueten?

Bai. Kritika asko jaso genuen. "16 urtera arte atzeratzea? Burutik pasatzea ere!", esaten ziguten. Eta gaur egun proposamen hori egiten dudanean, jendeak beste era batera hartzen du. Ibilbide bat eginda dago dagoeneko. Hedabideetan asko agertzen dira. Beste puntu batean gaude.

Pantailak nahinon daude. Garaiz gaude erabileraren gorakada gertatzen?

Bai, argi daukat hori, baina hori bakoitzaren ardura da. Familiekin

“Pantailekiko dugun menpekotasunaz jabetu behar dugu, kontzientzia hartu”

Miren Ros Aiertzaguena hezitzaileak (Eibar, 1975) pantailen erabilerak umeengan duen eraginari buruzko berbaldia emango du martxoaren 7an, Elorrioko Arriola kultur aretoan. 18:00etan izango da. Amaieran, mahai-ingurua egingo dute

PANTAILAK • EKAITZ HERRERA

Smartphone, Instagram, Tik Tok, tablet, Youtube. Zein da adin egokia gailu horiek erabiltzen hasteko? Zein da gailu horien kontsumoak nerabeengan (eta helduengan) duen eragina? Miren Ros hezitzaileak galdera horiei eta gehiagori erantzun die eguaztenean Elorrioren emango duen berbaldian. Ros 'Gure aukera, Guk 16' dinamikako sortzaileetarikoa da. Egitasmoa Zarauzko Salbatore Mitxelena ikastolako guraso talde batek sortu zuen, izurria baino lehenago, seme-alabek gailu digitalak kontsumitzeko harturiko ohiturez kezkatuta. Ordutik hona, kezka hori bera Euskal Herriko hainbat herri eta ikastetxetara zabaldu da, eta han-hemenka umeei eta nerabeei gailu digitaletarako sarbidea muga-tzeko hausnarketa taldeak sortu dira. Gainera, Bidelagun aholkularitza zerbitzuaren bitartez, Rosek lanketa profesionala egiten du haurren heziketari buruzko kezak lantzeko. Ezinbesteko lanketa gailu digitalak nagusi diren garaiotan.

Zein da auzia: "Nerabeek ez dute sakelakorik behar" ala "sakelakoan

beste erabilera bat posible da nerabeengan?"

Nerabeek ez dute sakelakorik behar, argi eta garbi. Beste aukerak, beste erabilera bat planteatzeak, ez du eraginik. Eta hau nerabeengatik eta helduengatik diot. Posible da beste erabilera bat? Beharbada, kasu gutxi batzuetan, bai. Baina oso zaila da. Horretarako, heldutasuna behar da lehenengo, formakuntza gero, eta sentsibilizazioa, kontzientziazioa, azkenik. Kontzientziazioarekin lan pila egiten gabilta. Nerabeek ez dute sakelakorik behar, hori argi daukat. Eta helduak garenok? Behar ote ditugu? Dudan jarriko nuke. Eskaintzen dituzten abantailen eta eragiten dituzten desabantailen artean, azken hauek nabarmen gehiago dira.

Egin dezagun zerrenda bat. Zeintzuk dira onurak eta zeintzuk kalteak?

Abantailak: lagunekin hartu-emanen egoteko aukera eskaintzen dute, lagun talde baten parte izateko aukera. Lan akademikoak egiteko baliagarriak izan daitezke, eta informazioa bilatzeko ere bai,

azken hauetan erabiltzen den iturria fidagarria bada. Entretenezko, aisialdirako, ere baliagarriak dira. Kito. Horrainsia. Desabantailen artean, berriz, multzo bi bereizten ditut. Batetik, sareko arriskuak daude. Sexu estortsioa, pederastia iruzurrak (grooming) edo identita-

Zer lortuko duzu umeari pantailarekin ez ibiltzeko eskatuta, zu pantailarekin bazabiltza etengabe?

tasuna, besteei aurpegira begiratzeko zailtasuna, kontsumitutako edukaren ondorioz sortzen diren jarrerak, besteekiko begirune falta, enpatia falta, arazoak loarekin, errendimendu akademiko eskasa, arreta mantentzeko arazoak, mioparen igoera, euskararen erabilerari eragitea, influencerrek eta youtuberrek plataformetan zabaltzen dituzten mezu matxistak, bortizkeria, ideologia... Jakina, gazteek idolo modura ikusten dituzte. Baina, gero, elikadura trastornoek, euren buruaz beste egin duten gazteen kopuruak eta autolesioek gora egin dute. Azken finean, sarean mundu perfektu bat irudikatzen da. Zimurrik gabe, zoriontsu, dena da bikaina. Baina, gero, gure bizitzak ez dira halakoak.

Zerrendaturikoaren artean, zeintzuk dira larrienak?

Menpekotasuna eta emozioak kudeatzeko zailtasuna. Zelan jakingo dugu zelan sentitzen garen geratu ere egin ez bagara eta geure buruari begiratu ez badiogu? Triste egotea, adibidez, ez zaio inori gustatzen. Triste nagoela? Bada, Tik Tok

esku hartzen dudanean ere lan-keta hori egiten dut. Hausnarketa egin behar da lehenik, eta erabakia hartu behar da gero. Demagun honako hau: gaur mugikorra etxean utzita irtengo naiz kalera. Horrelakoak egin behar ditugu, nahitaez.

Horrelako ekintzak kolektibizatu behar ditugu? Aliantzak sortu?

Arazoak gizarte osoari eragiten dio. Ikastetxeari, udalari, musika eskolari... pantaila dagoenik eta gailurik modernoena den ideia saldu zaigu. Eta gertatzen dabilena da pedagogiaren arabera baliabide eta pantailak ipini beharrean, alderantzizkoa egiten dugula. Baliabideen eta pantailen arabera pedagogia bat sortzen gabiltzala. Pantailak liburutegian, pantailak gimnasioan... Balaztari sakatu behar diogu, eta gogoeta egin. Frantziako estatuan, adibidez, babilizta errotiko aldaketa batzuk egiten. Hemen, baina, motel gabiltzala dirudi.

Nerabeei buruz gabiltza, baina helduok eragin horietatik salbuetsita gaude?

Hortxe dago, hain zuzen ere, gako. Denok egiten dugu zerbait gaizki, baina inor ez dadila gaizki sentitu. Pantailak horretarako sortuak izan dira, gure arreta bereganatzeko. Kontsumoan eta psikologian aditu direnek diseina-

tu dituzte, gu ahalik eta denbora tarterik handienez hor egoteko. Helduoi horri aurre egitea kostatzen bazaigu, pentsa horrek nola eragin dezakeen oraindik garatzen dabilen nerabe batengan. Hor ezin da erabilera on bat egin.

Izan ere, esaera zaharrak honela dio: "Umearen zentzuna, etxean entzuna".

Bai. Eta erabat ados nago. Askoz ere inportanteagoa da zer egiten dugun, zer esaten dugun baino. Zer lortuko duzu umeari pantailarekin ez ibiltzeko eskatuta, zu etengabe pantailarekin bazaude? Heldu modura, inportantea da pauso txikiak ematea. Jabekuntza bat behar dugu, kontzientzia hartu. Familia bazkaria dugunean, zenbat mugikor ateratzen dira bazkaldu bitartean? Horrek hartu-emanetan eta komunikazioan eragiten du, eta hori identifikatzen ikasi behar dugu. Umeari dagokionez, erraza da sakelakoa eman eta umea isilik eta geldirik mantentzea. Baina zein da ordaintzen den prezioa?

Bilatu ditzagun adibide praktikoak. Nondik heldu diezaiokegu auziari?

Hemen adibide praktiko bat: menpekotasuna. Sartu zure telefonoko ezarpenen atalera eta begiratu zenbat denboran egon zaren pantaila aurrean gaur edo aste osoan zehar. Aztertu pantailari es-



kainitako tarte horretan zer izan den etekingarria, zer izan den entretenimendu hutsa, zer izan den probetxua. Merezi dit? Demagun hiru orduz egon garela Tik Token, bi orduz Instagramen. Ikusitako horretatik zer oroitzen dut? Gogoratzen dut ala denbora-pasa hutsa izan da? Beste ariketa bat: asteburu osoa telefonorik gabe pasatzea. Deitu diezaiogun *detox* asteburua.

Konturatuko zara ez dagoela distraziorik. Aurpegira begiratu behar diogu elkarri, seme-alabek zuri. Beste aukera bat izan daiteke datuak kentzea, wifia kentzea, eta telefonoa deiak egiteko bakarrik baliatzea.

Deskonexioa da bidea?

Zalantzarik gabe. Gure menpekotasunaz jabetu behar dugu. Eskumuturreko erlojua erabili

ordez, pantailari begiratzen diogu gaur egun. Norabide hori hartu dugu. Abiapuntu modura, uste dut oso inportantea dela deskonexio momentuak sortzea. Gurasoak bidelagun gara seme-alaben hazkundera. Gai honekin ere lagundu behar diegu. Zer da Tik Tok? Nor da Ibai Llanos? Eduki batzuk familian kontsumitu ditzakegu, eta aztertu.



Zentzudun bizi,
blogean ikasi

Ekonomia eraldatzailea • Ekonomia feminista • Elikadura burujabetza • Etxea • Euskara
Gizarte eraldaketa • Gorputzaren burujabetza • Iraunkortasuna • Konmari metodoa
Kontsumo alternatibak • Zero zabor... **EUSKARAZI!**

Río de Ororen Elkartasun Karabanak 24 tona elikagai eroango ditu Durangaldetik Tindufeko kanpamentuetara

Aurtengo edizioan, orain urte biko bilketa datuak parekatzea lortu dute. Bestalde, zabalik dago Oporrak Bakean programan izena emateko aukera

DURANGALDEA • JOSEBA DERTEANO

Río de Ororen Elkartasun Karabanak utziriko kopuruak jakinarazi zituen martitzenean egindako prentsaurrekoan. Elikagaien eta beste produktuen artean, 24 tona batu dituzte aurtun. Horrela, orain urte biko datuak parekatzea lortu dute. Iaz kopurua herenera jaitsi behar izan zuten. 24 tona horietatik bederatzitik dohaintza modura jaso dituzte. Beste hamabostak herritarrek eginiko ekarpen ekonomikoak baliatuta erosi dituzte. "Espainiako estatu osoa kontuan hartuta, Euskal Herrian jasotzen dugu laguntzarik handiena", azpimarratu zuen Fatma Brahim Salemek, Fronte Polisarioak Euskal Herrian duen delegatuak. "Ikaragarri eskertzen dugu laguntza", gehitu zuen. Río de Oroko Mikel del Arco arduradunak Durangaldean urtero jasotzen duten elkartasun "itzela" nabarmendu zuen. Durangaldean baturiko dena trailer batean kargatu dute eta Euskadiko Elkartasun Karabanaren parte izango da. Guztira, 100 tona laguntza humanita-



Elkartasun Karabanako antolatzaile, sustatzaile eta babesleak trailerraren aurrean martitzen arratsaldeko prentsaurrekoan.

rio bidaliko dituzte Tindufera, lau trailerretan banatuta. Karabana martxoaren 9an irtengo da, Donostiatik Alacantera (Herrialde Katalanak). Han ferry batera igoko dituzte trailerrak, eta Oranera (Aljeria) bidaliko dituzte. Behin Oranera helduta, Fronte Polisarioaren ordez-

kariak arduratuko dira elikagaiak errefuxiatuen kanpamentuetara helarazteaz. Kanpamentuetan Saharako Ilargi Gorriak banatuko du laguntza herritarren artean.

Bestalde, Oporrak Bakean kanpainari buruzko xehetasunak ere eman zituzten. Adin txikiko saha-

rarrak eskualdeko familietan hartzeko kanpaina martxan da jada. Euskal Herrian 300 harrera familia lortu gura dituzte. Durangaldeari dagokionez, iaz 11 ume ekarri zituzten. "Iazko harrera kopurua handitzeko lan egingo dugu", adierazi zuen Mikel del Arcok. Horrez

gainera, Palestinan eta Gazan gaur egun bizi duten egoera ere gogoan izan du Río de Oroko arduradunak. "Gazan gertatzen dabilena genozidioa da eta salatu egin gura dugu. Gure babes osoa adierazten diogu herri palestinarri", esan zuen del Arcok.



Iñigo Mendibil erlezain atxondarra izango da berbaldia emango duenetariko bat.

Liztor asiarrari aurre egiteko boluntarioak prestatuko dituzte eskualdeko herrietan

Erletek eta Urkiola Landa Garapenak berbaldi sorta bat antolatu dute espeziari aurre egiteko teknikak erakusteko

DURANGALDEA • EKAITZ HERRERA

Liztor asiarrak biodibertsitatean eragiten dituen ondorio larrien aurrean, Urkiola Landa Garapenak eta Durangaldeko Erlete erlezainen elkarteak elkar antolatzea erabaki dute. Martxoaren 7tik 14ra bitartean, liztor asiarrari aurre egiteko formakuntza saioak emango dituzte eskualdeko hainbat herritan. Berbaldietan, espezie inbaditzaileari

aurre egiteko teknikak erakutsiko dituzte, besteak beste. Asiako liztorra bertako erlez elikatzen da, eta horrek nabarmen eragiten dio ingurumenari. Eztigileek ere sendo igarri dute bere kaltea, liztorraren presentzia antzeman denetik hona eztiaren ekoizpena %70 gutxitu da eta.

Berbaldiak herrika

Berbaldiak honako egun eta

herri hauetan emango dituzte: martxoaren 7an Atxondoko gimnasioan, Elorrioko Iturri Kultur Etxean eta Mañariko udaletxean; martxoaren 12an Mallabiko Kontzejuzaharreen; eta martxoaren 14an Garaiko udaletxean eta Berrizko Kultur Etxean. Berbaldi guztiak 19:00etan izango dira. Erlete Eztiolako erlezainek emango dituzte: Iñigo Mendibilek, Felix Zabartek, Hegoi Escuderok, Jon Castillock eta Iñaki Narbaizak. Berbaldietarako sarrera librea izango da, lekuak bete arte.

anboto

**Gertuko Koop S.,
Gizarte Ekimenekoa**

Bixente Kapanaga, 9
48215 Iurreta - Bizkaia
Tel.: 946 816 558

Erredakzioa: 946 232 523
Publizitatea: 946 217 902

**2024ko martxoak 1a
22. urtea - 970. alea**

Lege gordailua:
BI-2268/01

ISSN:
1578-7028

Tirada:
12.000 ale

Zuzendaria: Jone Guenetxea Arrinda.
Erredakzio burua: Ekaitz Herrera Azkarraga.
Administrazioa: Itziar Belar Zubizarreta eta Miren Abasolo Txabarri.
Publizitatea: Alazne Salcedo Artetxe eta Goretti Alonso Armendia
Erredakzioa: Aitziber Basauri Gandiaga, Joseba Derteano Bilbao, Maialen Zuazubiskar Gallastegi, Aritz Maldonado Zabala.
Maketazioa: Nahia Coello Calzacorta.
Zuzentzailea: Mikel Azkarraga Etxegibel.



Bizkaia
foru aldundia
diputación foral

Aldizkari honek Bizkaiko Foru Aldundiaren laguntza jaso du



EUSKO JAURLARITZA

GOBIERNO VASCO

KULTURA ETA HIZKUNTZA
POLITIKA SAILA

DEPARTAMENTO DE CULTURA
Y POLÍTICA LINGÜÍSTICA

Hezkuntza, Hizkuntza Politika eta Kultura Sailak diruz lagundua

Ekainean sukaldea ipintzeko obrak hasiko dituzte Zabalarra eskolan

Frai Juan Zumarraga institutuan ere berrikuntza lanak egingo dituzte. Datorren urtean frontoia berriztuko dute

DURANGO • EKAITZ HERRERA

Hezkuntza Sailak eta Durangoko Udalak elkarlana hasi dute herriko ikastetxe bitan obrak gauzatzeko. Batetik, Zabalarra eskolan, sukaldea ipiniko dute eta jantokia handituko dute. Behe solairuari modulu berri bat gehituko diote, etorkizunean "janaria ikastetxean bertan prestatu eta kontsumitu ahal izateko". Sukaldez gainera, biltegia, sukaldeko behar-gintzako eta begiraleentzako aldagelak, hondakinen eremua, hozkailu gela eta komun berriak eraikiko dituzte. Obrak egiteko aurreikusirik epea hamalau hilkoa da, eta, Durangoko Udalak azaldu duenez, jantoki zerbitzua bermatuta egongo da lanek irau-

ten duten bitartean. Hezkuntza Sailak ia 1.012.000 euroko aurrekontua prestatu du lanak gauzatzeko.

Bestalde, Frai Juan Zumarraga institutuan frontoia berriztuko dute, egitura eta teilatua aldatuta. Horrez gainera, harmaila kenduko dute, eremua "ikastetxeko patioan hobeto integratzeko". Momentu honetan, instituzio publikoak proiektua lehiaketara atera ahal izateko orriak prestatzen dabilta. Obrak 2025ean hasi gura dituzte. Lanek lau hilabete irautea aurreikusi dute.

Mireia Elkoroiribe alkateak udalak hezkuntzagaz eta hezkuntza azpiegiturekin dituen "konpromisoak" azpimarratu ditu.



Zabalarra eskola.

Gaitasun Handiko Osasun Zentroa trenbideko lurretan eraikitzea erabaki dute

Udalaren eta Osakidetzaen iritziz, kokalekurik "onena" da

DURANGO • EKAITZ HERRERA

Durangoko Udaleko eta Osakidetza ordezkariek udaletxean batu dira asteon, osasun azpiegituraren kokaleku posibleak aztertzeko. Eta, alde biek erabaki dutenez, trenbide zaharreko lursailak dira "aukerarik onena" Gaitasun Handiko Osasun Zentroa egiteko. Hemendik aurrera prozesuagaz aurrera jarraituko dutela gaineratu dute. Udala Euskal Trenbide Sareagaz (ETS) hitzarmena sinatzeko lanean dabil, eta, aurrerratu duenez, PERIaren eremuko arau subsidiarioak aldatuko ditu. Mireia Elkoroiribe alkatea "pozik" agertu da asteon emaniko urratsagaz, "aurreko

agintaldian emanikoen aldean gaur ezaugarri berriak sartu direlako". "Uste dugu Trenbidearen PERIa dela gunerik egokiena Osasun Sailak Durangorako bultzatu gura duen Gaitasun Handiko Zentroa eraikitzeko. Durangarrentzat hain garrantzitsua den proiektu honek aurrera egiteko beste urrats handi bat emateko balio izan du bilera honek", adierazi du alkateak.

Aurrera begira, udalak parte hartze prozesu bat hasiko duela aurrerratu du, herritarrekin batera trenbide zaharreko orube osoa diseinatzeko. "Ahalik eta adostasunik zabalena lortu" gura du Elkoroiribek.

'Emakumeak Aberria Eginez' erakusketa ibiltaria Zelaieta Zentrora ailegatu da

Erakusketak Emakume Abertzale Batza (EAB) elkartearen historia jasotzen du hamabi panel eta objektu historikoak baliatuta. Martxoaren 11n berbaldia emango dute



Begoña Bilbao EHuko ikerlariak (ezkerrean) azalpenak eman zituen martitzen iluntzean, erakusketaren inaugurazioan.

ZORNOTZA • EKAITZ HERRERA

Zornotzako Armendola Kultur Elkartek eta Sabino Arana Fundazioak *Emakumeak Aberria eginez* erakusketa antolatu dute Zelaieta zentroko lehenengo solairuan. Erakusketak Emakume Abertzale Batza (EAB) elkartearen ibilbidea aztertzen du dozena bat panel informatibo, testu, irudi, dokumentu, bideo eta objektu aurkeztuta. EHuko aditu talde bat arduratu da EABren ibilbidea ikertzeaz, eta aletutako dena liburu batean ere jaso dute. "Oso atsegina izan da ikerlan hau. Gauza batzuk lehenetik ere ikertuta zeuden arren, ez genekien emakume haiek eginiko lana hain inportantea izan zela", azaldu du azterlanean parte hartu

duen Begoña Bilbao EHuko ikerlariak.

Emakume Abertzale Batza orain 100 urte pasatxo eratu zen, EAJren aterkipean. Hezkuntza arloan, gizarte gaitan eta kultur transmisioan eragin zuen, garaiko emakumeak ahaldunduta. Bere ibilbideko mugarririk esanguratsuenak gerra zibilaren aurreko eta osteko urteetan izan zituen. 1931-1933. urteen artean, adibidez, Hego Euskal Herriko lau lurraldeetako 28.500 emakume zeuden elkartearen inskribatuta. Gerora, gerrak eragindako erbestearen ondorioz, beste 30 talde sortu ziren Ipar Euskal Herriko hiru lurraldeetan. EABk ipinitako beste mugarri bat *Araba Sarea* izan

zen. Elkarteko emakume talde batek espioitza lanak egin zituen 1937-1940. urteen artean, momentu hartan erbestean zegoen Eusko Jaurlaritzarentzat. Hain zuzen ere, Sabino Arana Fundazioak "neurri batean ezezagun izandako emakumeen lana errekonozitu" gura izan du erakusketaz. Bilboak bat egin du ikuspegi horregaz: "Emakume haiei izen-deiturak eta aurpegia ipintzen ahalegindu gara. Pausoz pauso nortzuk ziren azaldu dugu, eta euren eginkizun guztiak jaso ditugu. Zor hori genuen eurekin", gaineratu du. Erakusketa martxoaren 17ra arte egongo da. Hilaren 11n, 19:00etan, Zornotzako emakumeek EABn izan zuten ibilbidea aletuko dute berbaldi batez.

Gibelurdinek taldearen kontzertua Zornotzan, Nañon elkarteak antolatuta

ZORNOTZA • E.H.

Uribe Kostako Gibelurdinek taldeak kontzertu gutxi batzuk baino ez ditu eman azken bost-sei urteetan. Bada, datorren martxoaren 14an, eguenean, taldea zuzenean ikusteko aukera bakarrenetariko bat egongo da Zornotzan. Laukotea Luis Urrengoetxea kalean zehar ibiliko da musika jotzen, 19:00etan hasita. Kontzertua Zornotzako Nañon euskara elkarteak programatu du. Gibelurdinek taldeak 2012an kaleratu zuen bere lehenengo lana. Laukoteak herri musika lantzen du, doinu irlandarrak oinarri hartuta.



Taldeak herri musika lantzen du.

Datozen egunetan hasiko dira San Agustingo pasealekua hobetzen Elorrion

Elorriko Udaletik jakinarazi dutenez, lan hauek irauten duten bitartean pasealekua itxita egongo da

ELORRIO • MAIALEN ZUAZUBISKAR

2024ko aurrekontuen negoziaketan barruan, gobernu taldeak eta Elkarrekin Podemosen San Agustingo pasealekua hobetzea adostu zuten, eta, Elorriko Udaletik jakinarazi dutenez, eguraldia lagun bada aste honetan hasiko dira. "Eroskiren eta lehenengo bidegurutzearen arteko San Agustingo espaloiko tartea herritar askok erabiltzen dute paseatzeko, baina tarte hori ez dago ondo",

adierazi dute Elorriko Udaleko kideek. Hori horrela, eguraldiak baimentzen duenean gunea hobetzen hasiko direla azaldu dute. Lanek hilabete inguruko iraupena izango dute eta, bien bitartean, pasealekua itxita egongo da semaforotik gasolindegiko bidegurutzeraino.

Elorriko Udalak 48.172 euro ipiniko ditu pasealekuko lan hauek egiteko.



San Agustingo pasealekua.

Zabalik dago Ferixa Nausikoak iragartzeko kartel lehiaketan parte hartzeko epea

Lanak aurkezteko epea maiatzaren 24an amaituko da. Kartel irabazleak 500 euroko saria izango du



Elorriko jaietako iazko argazkia.

ELORRIO • MAIALEN ZUAZUBISKAR

Aurten, abuztuaren 31tik irailaren 8ra ospatuko dituzte Elorriko Ferixa Nausikoak, eta dagoeneko parte hartu daiteke jaiok iragartzeko kartel lehiaketan. Irabazleak 500 euroko saria eskuratuko du. Ezinbestean, honako testu hau agertu beharko da kartelean: *Ferixa Nausikoak 2024 - Elorrio - abuztuak 31 - irailak 8*. Aurkezturiko lan guztiak Iturri Kultur Etxeko sarreran eta *elorrio.eus*-en ikusgai egongo dira ekainaren 3tik 14ra arte. Ekainaren 19an jakinaraziko dute nor den irabazlea.

Udaberrirako komun publikoak instalatuko dituzte Abadiñon

ABADIÑO • MAIALEN ZUAZUBISKAR

Abadiñoako Udalak dagoeneko esleitu du Traña-Matienan eta Muntzaratzen komun publikoak ipintzeko proiektua. Abadiñoako Udaletik jakinarazi dutenez, lanek 110.006 euroko aurrekontua dute.

Aurreikuspenen arabera, komunitariko bat Traña-Matienako Traña plaza inguruan egongo da, eta bestea Muntzaratzeko futbito zelaiaren eta txintxaunen inguruan.

Traña-Matienan komun publikoa ipintzea proiekturik bozkatuena izan zen iazko au-

rrekontu parte hartzaileetan. "Jarduketa atzeratu egin da, hainbat soluzio tekniko baloratu behar zelako. Gainera, Muntzaratzen ere beste komun

Aurreikuspenen arabera, komunitariko bat Traña plazan egongo da, eta bestea Muntzaratzen

bat instalatzea erabaki dugu", azaldu dute udaleko kideek.

Atxondon elkarretaratzea egingo dute Palestinaren askatasuna aldarrikatzeko



Aurreko elkarretaratze bateko argazkia.

ATXONDO • MAIALEN ZUAZUBISKAR

Atxondoko herritar talde batek Palestinaren egoerari "kezka eta amorruz" begiratzeko diote, eta hori salatu eta honen askatasuna aldarrikatzeko mobilizatzen hasi ziren iazko azaroan. Dagoeneko hiru mobilizazio egin dituzte, eta domeka honetarako beste bat deitu dute.

Kontzentrazioa domekan

Kontzentrazioa domekan, martxoak 3, izango da 12:30ean Hirubideko biribilgunean. "Herritarren erantzuna oso ona izaten dabil, eta horregaitik elkarretaratze honetarako bertaratzeko deia egiten diegu", azaldu dute dinamikaren bultzatzaileek.

Gainera, datorren asteko osoko bilkuran mozio bat aur-

keztuko dutela eta sinadurak biltzen dabilta jakitera eman dute. Sinadurak batzen gaur, barikua, egongo dira Apatako plazan. Mozioan, besteak beste, udalari ondorengoa eskatuko diote: irmotasun osoz arbuizatea Israelen Gazan zein Palestinako beste lurraldeetan egiten ari den ekintza militarrek, larrialdi humanitariorako dirulaguntza bat onartzea eta Palestinako bandera balkoian jartzeko konpromisoa hartzea. Bestalde, barikuro Palestinako banderak saltzen herriko plazan egoten direla azaldu dute, eta bariku honetan ere egongo dira. Gainera, egun horretan bertan, herriko merkatariei beraien komertzioetan jartzeko banderak banatuko dizkietela azaldu dute.

Gremioen gida



Zurgintza

leike Eraberritzeak
Interiorismoa
Aroztegia

NEURRIRA EGINIKO PROIEKTUAK



www.leike.eus

Antso Estegiz, 3 Durango
Tlf.: 94 681 72 29

Zurgintza

ATERPE ARBOTZAK
EGUR ERAIKUNTZAK
TEILATU ETA BARRUKO LANAK



Asier Abendibar 635 74 84 65
Ander Maiztegi 655 73 75 51
www.carpinteriaaterpe.com

Iturgintza

Ubide
iturgintza

Iturgintza, gasa eta berokuntza

946 030 506 / 625 702 208
ubide@euskalnet.net
48200 DURANGO 188 PK.

Iturgintza

UNAI GARAY
ITURGINTZA
BEROGINTZA
GASA

INSTALATZAILE BAIMENDUA

659 673 790
unaigaray@yahoo.es

Iturgintza

Mallabiena

M.Z.O. ITURGINTZA - GASA
BEROGAILUA - ERAIKUNTZA, S.L.



Mallabiena industrigunea, 6
48215 IURRETA · Tel.: 946 818 862
mallabiena@mallabiena.com

Dekorazioa

JAIObarnizatuak

Armairu eta era askotariko
altzairuen lakadura eta
guztietako zaharberritzeak
egiten ditugu

Eitua Industrialdea, 45 Garaia A · BERRIZ
Tel./Faxa: 946 824 143 · Mug.: 658 758 421
info@jaiobarnizatuak.com
www.jaiobarnizatuak.com

Otxandion langile baten bila dabilta turismo bulegorako

Udalak lan eskaintza hasi du. Aste Santuko egunetarako eta, udan, uztaileko eta abuztuko hileetarako da

OTXANDIO • J.D.

Urteko sasoi batzuetan, Otxandion Udalak turismo bulegoa zabaltzen du herria bisitatzera datozen turistei arreta eskaintzeko. Udaletxeko plazaren ondoan dago bulegoa. Une honetan bulegoak ez du arduradunik, eta udalak lan eskaintza publikoa egin du arduradun bat bilatzeko.

Behin-behineko langile bat kontratatu gura dute, %40ko jardunaldiagaz. Eskaintzaren epealdia honako hau da: Aste Santuaren aurreko zapatatik Pazko Astelehenera arte (egun biak barne), eta udako hile bi: uztailea eta abuztua. Langileak honako baldintzak bete behar ditu: Ba-

txillergo titulua edo baliokidea den bat izatea eta euskaraz nahiz gaztelaniaz berba egitea. Ikasketak euskaraz egin ez dituztenei EGA titulua edo baliokidea izatea eskatzen diete. Horrez gainera, beste merituzko batzuekin hartuko dituzte: hizkuntza gehiago jakitea, lan esperientzia izatea, Otxandion inguruari buruzko ezagutza izatea...

Lanbideen alta emanda egotea beharrezkoa da. Interesa dutenak Lanbideguz hartu-emanen ipini daitezke. Lan eskaintzaren gaineko informazio guztia www.otxandio.eus webgunean sartuta eta udalera deituta eskuratu daiteke.



Otxandion turismo bulegoa.

Korrika Mañaritik igaro eta gero, Xabi Solanok kontzertua emango du herriko plazan

Martxoaren 22an izango da zuzeneko, 23:30 inguruan

MAÑARIA • J.D.

Martxoaren 22a egun berezia izango da Mañarian, aspaldiko partez Korrika herritik igaroko delako. Gauetz pasatuko da, 22:45 inguruan. 20:30ean, Ratapunk elektrotzaranga herritik zehar

ibiliko da giroa sortzen. Baina Korrika igaro eta gero ere egongo da zegaz gozatu. Izan ere, 23:30 inguruan, Xabier Solano eta Zigor DZ musikariek kontzertua emango dute plazan, udalak antolatutako ekimenean.



Xabi Solano joan zen asteburuan, 40 Minutu Rock jaialdian. **40 MINUTU ROCK**

Anfibioen ugalketarako putzua egin dute Mallabian

Lanbide Heziketako ikasleek egin dute, herritarrekin. Intsektuentzat eta narrastientzat ere egin dute



Institutuko ikasleak, putzuaren ondoan.

MALLABIA • JOSEBA DERTEANO

Mallabiko anfibio, narrasti eta intsektuek prest dute etxe berria. Lanbide Heziketako Ermua-Mallabia udal institutuko ikasleak dira eraikin berriko 'arkitektoak', hainbat herritarren laguntzagaz. Lurrezko hormak ditu, zorua umel-umela da, eta harriekin, egurrak eta belarrak dekoratu dute. Bertara lekualdatzen denak baldintza egokiak aurkituko ditu ugalketarako, eta horixe da, hain zuzen ere, helburu nagusia.

"Egitasmo egokia iruditu zitzaigun natura ezagutzeko eta ikasleen artean naturagazko errespetua eta halako balioak sustatzeko, eta aurrera eramatea erabaki genuen", adierazi du ins-

titutuko natur zientzietako irakasle Ioritz Gisasolak. 15etik 18 urtera arteko 40 bat ikasle parte hartu dute proiektuan.

Mallabiko erreka ondoan dago putzua, Palazio izeneko eraikinetik gertu. Kautxozko tela bat ipini dute lurpean, euri urekin putzua sortu dadin. Datozen aste eta hiletan gertutik zainduko dute putzuaren garapena. Ugalketarako zein anfibio, narrastik eta intsektuek erabiltzen duten jakin gura dute. Anfibiota baso igel gorriak erabiltzea espero dute, besteak beste; narrastietan suge espezieen batek, eta intsektuetan sorgin-orratzek eta burrunziak, batez ere.

Gorputz anitzen edertasuna aldarrikatzeko erakusketa Mallabian

MALLABIA • J.D.

Nahikari Emakumeen Elkarrekin FEKOOR elkartearen Gure gorputzak, hainbat lurralde argazki erakusketa ekarriko du Mallabira. Gaur hasi eta martxoaren 10era bitartean, Kontzejuzarrean egongo da ikusgai. FEKOOR, Gutxitasun Fisikoa edo Organikoa duten Pertsonen

'Gure gorputzak, hainbat lurralde' erakusketa martxoaren 10era arte dago ikusgai, Kontzejuzarrean

Bizkaiko Federazio Koordinatzaileak, "gorputz normatiboaren inposizioa eta edertasun konbentzionalaren estereotipoak haustea" du helburu erakusketa honeguz, elkarrekin kideen esanetan. Bestela esanda, "edertasuna gorputzen aniztasunean" dagoela aldarrikatu gura dute, Nahikariko kideek esan dutenez.

Erakusketa osagarri modura, berbaldi-solasaldi bat ere antolatu dute martxoaren 9rako. 12:30ean izango da. Argazkietan protagonista diren emakume batzuek euren esperientzia kontatuko dute.

Izurtzako Lejarza auzoko baserri bateko teilatu zati bat jausi zen eguaztenean

Ez zen zauriturik egon, barruan pertsona bat zegoen arren



Baserria, teilatu zatia jausita. @BOMBEROSIURRETA

IZURTZA • J.D.

Martitzen gauean, Izurtzako Lejarza auzoko baserri bateko teilatu zati bat behera etorri zen. Une horretan bertan, pertsona bat eraikinaren barruan zegoen, baina onik irten zen, eta, beraz, ez zen zauriturik egon. Egoera aztertu eta gero, suhiltzaileek ingurua zigitatu zuten, eraikineko beste zati batzuk jausteko arriskua zegoelako.

Etxe barruan zegoen pertsona gertuko lagun baten etxera joan zen jazoeraren ondoren, eta udalak Mankomunitateko zerbitzu sozialekin hartu-emanen ipini zuten, Izurtzako Udaleko iturrien arabera.

2021ean sutea

Baserri horren goiko aldean, errepidearen ondoan, beste eraikin bat dago eta eraikin horrek su hartu zuen 2021eko apirilean. Suhiltzaileak bertaratu arren, eraikin zati horretako barrua kiskalita geratu zen. Barruan ez zegoen inor sutea gertatu zenean eta orduan ere ez zen zauriturik egon.



Okm: *batzen gaituen distantzia*

Egin zaitez anbotokide!

anboto
kide



Anbotokideen txokoa

MARTXOKO ZOZKETAK



Cherry Boppers
musika ikuskizuna,
Arriolan. Martxoak
15ean 22:00etan.



Maria Blanco
bakarrizketa
Zornotza Aretoan.
Martxoak 8an
23:15etan.

*Zozketa hauetan parte hartzeko eman izena gure webgunean.

IRABAZLEAK

- Xiberu: Iban Ibarretxe Mezo
- 'Baginaren bakarrizketak': Ainhoa Diez Sanz
- 'Aitzindariak': Jon Badiola Totorikaguena

Okm:
batzen gaituen
distantzia

Egin zaituz Anbotokide
eta parte hartu gure
zozketetan!



Berrizko udaletxea.

Berrizko kiroldegiko estalkia eraberritzea izango da aurtengo inbertsio nagusia

Udalak 2024ko aurrekontuak onartu zituen joan zen martitzeneko osoko bilkuran

BERRIZ • MAIALEN ZUAZUBISKAR

Joan zen martitzeneko osoko bilkura egin zuten Berrizen, eta bertan 2024ko aurrekontua onartu zuten, 6.927.000 eurokoa. Udaletik jakinarazi dutenez, 2023ko aurrekontua baino %6,80 handiago da eta EAJren eta PSE-EEren aldeko botoekin onartu dute. EH Bilduko zinegotziek aurrekontuaren kontra bozkatu zuten.

Aurtengo aurrekontuan hiru proiektuk izango dute inbertsioetako diru atalik handiena. Proiektu nagusia kiroldegiko estalkia eraberritzea izango da. Lan horretarako, udalak 166.821 euro ipiniko ditu. Horrez gainera, Hiri Anto-

lamendurako Plan Orokor berria ere egingo dute. Honek 103.455

Hiri Antolamendurako Plan Orokor berria ere egingo dute, 103.455 euroko aurrekontuagaz

Kultur Etxeko ekipamenduak berrizteko, 70.000 euroko partida erabiliko dute

euroko aurrekontua izango du. Udaletik azaldu dutenez, %100ean

Bizkaiko Foru Aldundiaren funtsekin finantzatzea aurreikusten dute. Hirugarren proiektu nagusia Kultur Etxeko ekipamenduak berritzea da. Horretarako, 70.000 euroko partida erabiliko dute.

Bestalde, laguntzen atalean ere igoerak daudela jakinarazi dute. Emantzipatzeko eta alokairua babesteko laguntza-lerro berri bat sortzeko, 15.000 euroko partida sortu dute, eta lankidetzarako, kiroltarako eta hezkuntzarako laguntzen partidak handitu egin dituzte. Horrez gainera, enpresak sortzeko 24.000 euroko partida ere mantenduko dutela jakinarazi dute.

Saharako Errepublika Arabiar Demokratikoaren bandera ipini dute Zaldibarko udaletxean



ZALDIBAR • JONE GUENETXEA

Saharako Errepublika Arabiar Demokratikoa aldarrikatu zen orain 48 urte. Data horren harira, Zaldibarko Udalak Saharako Errepublika Demokratikoaren bandera ipini du bere balkoian. Hartara, saharar herriari elkartasuna adierazi gura

Joan zen martitzeneko 48 urte bete ziren Saharako Errepublika aldarrikatu zutela

izan diote. Horrez gainera, udaleko osoko bilkuran Sahararen inguruko mozioa eztabaidatuko dute.

Bizkaiko suhiltzaileek trafiko istripuetako erreskateen lehiaketan parte hartu dute lurretako suhiltzaile-etxean

Talderik onenak Bizkaiko Prebentzio, Suhiltzaile eta Salbamenduzko Zerbitzua ordezkatzeko du Espainiako txapelketan



lurretako suhiltzaile etxean egin duten simulazio lehiaketaren irudi bat. BIZKAIA.EUS

IURRETA • JOSEBA DERTEANO

Bizkaiko hainbat parketako 72 suhiltzailek istripuetan bikti-

mak ibilgailuetatik ateratzeko simulazioen lehiaketan parte hartu dute, asteen, lurretako suhil-

tzaile etxean. Hain zuzen ere, Urioste, Basauri, Artatza, Iurreta, Arratzu, Zalla eta Derioko suhil-

tzaile etxeetako hamabi errelebotako suhiltzaileak eta kaboak lehiatu dira. Talderik onenak Bizkaiko Prebentzio, Suhiltzaile eta Salbamendu Zerbitzua (PSSZ) ordezkatzeko du Espainiako txapelketan. Txapelketa hori Coruña (Galizia) izango da, ekainean. Bertan sailkaturikoek munduko txapelketan parte hartuko dute.

20 minutuko erlojupekoan harrapatuta dagoen biktima bat erreskatzeko maniobra bat ebatzea izan da erronka, jakinarazi dutenez. Maniobra horietan, autoak iraulita, bata bestearen gainean ipinita edo zuhaitzen kontra sartuta egoten dira. Talde bakoitza agintari batek, osasun langile batek eta hiru edo lau

suhiltzaileko lantalde teknikoak osatzen dute. Helburua da trafiko istripuetako benetako esku-harzteetan eta biktimei eman behar zaien laguntzan suhiltzaileen zerbitzuen erantzuna hobetzea. Horretarako, tekniken hobekuntzan, trebezia berrien garrantzian eta formakuntzan lan egiten dute, Bizkaiko Foru Aldundiak ohar batean jakinarazi duenez.

Euskadiko taldeak, lehenengoz

Iaz ere lurretan egin zuten txapelketa, eta aurten Euskadiko suhiltzaileen gainerako zerbitzuei talde banagaz parte hartzeko gonbita egin diete. Bada, Bilboko, Donostiako eta Gasteizko udaletako zerbitzuek erronka onartu dute eta, beraz, hamabost talde lehiatu dira guztira.

2023an Bizkaiko Prebentzio, Suhiltzaile eta Salbamendu Zerbitzuak 538 trafiko istripu artatzeko aktibatu ziren, Aldundiak azaldu duenez.


Gutziz elektrikoak diren ibilgailu bi lurretako kaleak garbitzeko

lurretako Udalak "jasangarritasunaren alde harturiko konpromisoan eta eginiko apustuan" eragin gura du

IURRETA • AITZIBER BASAURI

Udalak %100 elektrikoak diren ibilgailu bi gehituko ditu herriko garbiketa zerbitzuan, "zero igorpendunak eta kutsadura akustikoa deuseztatzen dutenak", ohar batean azaldu dutenez. Hartara, "udalaren jasangarritasunaren aldeko konpro-

misoan eta eginiko apustuan" eragin gura dute. "Lanean jarraitzen dugu ingurune garbiagoa eta osasungarriagoa sustatzeko, eta lurreta ingurumena zaintzeko udalerrri iraunkorrako eta konprometituago bihurtzeko", esan du Iñaki Totorikaguena alkateak.



lurretako Udalak erosiriko ibilgailu elektriko biak.

Dagoeneko konpondu dute Beratu eta Aiartza auzoen arteko bidea

Garaiko eta Abadiño udalek elkarlanean koordinatuta eraman dituzte aurrera herri bidea konpontzeko lanak; udal biek aurre egin diote 108.000 euroko inbertsioari

ABADIÑO / GARAI • EKAITZ HERRERA

Amaitu dituzte Beratu eta Aiartza auzoak lotzen dituen herri bidea konpontzeko lanak. Abadiño udalek hitzarmena sinatu zuten iaz, konpontze lanak elkarregaz egin eta auzotarren, oinezkoen eta ibilgailuen segurtasuna bermatzeko.

Errepidetik urak ateratzeko, bide arroilak eta asfaltatze lanak gauzatu dituzte 1.140 metroko trazadura duen errepide tartean. Obrak 108.000 euro pasatxoko aurrekontua izan du. Abadiño inbertsioaren %42 hartu du bere gain; gainerakoa, Garaik. Azken honek kudeatu ditu zuzendaritza eta kontratazio prozedurak.



Mikel Urrutia Abadiño udaleko alkatea Erramun Osa Garaiko alkateagaz.

GOI-MAILA:

Elikagaien industriako prozesuak eta kalitatea
Administrazioa eta finantzak
Web aplikazioen garapena
Automatizazioa eta robotika industriala
Mekatronika industriala
Efizientzia energetikoa eta eguzki energia termikoa
Fabrikazio mekanikoko produkzioaren programazioa

ESPEZIALIZAZIO IKASTAROA:

Zibersegurtasuna eragiketa-teknologiaren inguruneetan

Eman zinen!

10: LANBIDE
30 HEZIKETA

Ate irekiak
Martxoak 16

11: BATXI
00 LERGOA

ERDI-MAILA:

Mantentze-lan elektromekanikoa
Beroa sortzeko instalazioak
Instalazio elektriko eta automatikoetako teknikaria
Elikagaiak elaboratzeko teknikaria

Markina-Xemein
94 616 90 02 | info@leartik.eus

lea artibai
ikastetxea

IKASGILUAK
HETEL
IKASGILUAK

Erosketa, gastronomia eta entrentenimendurako asteburua antolatu dute astebururako Durangon

Gaurtik domekara bitartean, Dendak Bai Fest ospatuko dute Landako Gunean



Dendak Bai kideak udaleko ordezkariekin batera.

DURANGO • MAIALEN ZUAZUBISKAR

Durangoko eta Iurretako merkataritza, ostalaritza eta zerbitzuak biltzen dituen Dendak Bai elkarteak, Dendak Bai Fest antolatu du asteburu honetarako. Martxoaren 1ean, 2an eta 3an Landako Gunera bertaraten direnek ekintza, erosketa eta gastronomia eskaintza zabalaz gozatzeko aukera izango dute. Barikuan 10:00etatik 14:00etara eta 17:00etatik 21:00etara egongo da zabalik.

Zapatuan egun guztian zehar, 10:00etatik 21:00etara, eta domekan 11:00etatik 14:00etara. Dendak Bai Fest-erako sarrera doakoa izango da. Gainera, erosketak egiten dituztenek ordu bian doan izango dute Landako Guneako aparkalekua.

Politikan

Markel Larruskain Narbaiza
EH Bildu



Goitik beherakoak

Badirudi behetik gora eraikitakoa goitik behera aldatzeko joera dagoela Durangoko Udalaren partetik. Txikikeria dirudien adibide bat jarriko dut, lerro hauek ez didatelako gehiagorako ematen. Herri hezitzailea eta haurren hiria. Durango, helburu eta filosofia honen arabera eraikitzeko konpromisoa hartu genuen udaleko talde politikoguztiok joan den legegintzaldian. Errespetuan eta zaintzan oinarritutako harremanak eraikitzea, herriaren eraldaketan oinezkoiei lehenetsia ematea eta haurren mugimendu autonomia bultzatzea. Printzipio hauek oinarri hartuta, hainbat ekimen eta prozesu jarri ziren martxan, horien artean "eskolara oinez" dinamika. Herriarren artean harreman sareak osatu eta adin txiki-koak eskolara oinez bakarrik joateko ahaldundze bat ematea zen helburua. Haurren mugimendu askatasuna berreskuratzeko harremanak sustatu eta herri txikiagoetan ohikoa dena berreskuratzea. Udaletik hartu den azken erabakia, filosofia eta logika honen kontra, enpresa bati kudeaketa esleitu, bide eta ordutegi batzuk definitu eta begirale batzuk kontratatzea.

Batzuetan nahasmena sortzen duen arren, kolaborazioa eta kontratazioa ez dira gauza bera, beraz, bereizi ditzagun publiko-pribatua eta publiko-komunitarioa, eta ez diru irabazi asmoetan bakarrik.

Bizitzaren azpikontratazioaren eta kontsumoan oinarritutako aisialdiaren apologiaren garaiotan, prozesuak inoiz baino garrantzitsuagoak dira, helmugari balioa eta bizitzari zentzua ematen diotelako. Eutsi diezaiozun beraz biderei.

Durangaldea asteen

Sendabelarren ikastaro bat emango dute Abadiñon, eta dagoeneko izena eman daiteke

ABADIÑO | Abadiñoko Udalak sendabelarrei buruzko ikastaro baterako izen-ematea ireki du. Udaletik azaldu dutenez, jarduera hau aurrekontu parte-hartzaileen azken edizioako proposamenetako bat da. Ikastaroak bi saio izango ditu, bata martxoaren 16an eta bestea apirilaren 20an. Izen ematea martxoaren 10era arte egin daiteke.

Elorrioko liburutegiko erabiltzaileek sail berria izango dute eskuragai, komiki saila

ELORRIO | Helduen zein ume eta gaztetxoek liburutegietan sail berria izango dute aurrerantzean: Komikiteka. Udaletik azaldu dutenez, orain arte ere liburutegian askotariko komikiak aukeratu ahal izan dira, eta orain altzari bereziak egokitu dituzte komiki horiek modu erosoan ikusi eta aukeratzeko. Bestalde, udaletik jakinarazi dute martxoaren 17an Komikiaren Eguna ospatuko dutela.

Zornotzako Larrea Kiroldegiko ikastaroetan izena emateko epea zabalik dago oraindino

ZORNOTZA | Martxoaren 6ra bitartean, zabalik egongo da Larrea Kiroldegiko bigarren hiruhilabeteko ikastaroetan izena emateko epea. Plazak baino eskaera gehiago badaude, zotz eginda erabakiko dituzte plazak. Zozketa martxoaren 8an egingo dute. Izen ematea udaleko webgunean edo kiroldegiko harreran egin daiteke.



Domekan, martxoak 3, Zuhaitz Eguna egingo dute Durangon, San Andres inguruan

DURANGO | Espai Zuhaitz Eguna martxoaren 3an ospatuko dute, Durangoko Udalak "ingurune naturala zaintzeko eta Durango ja-sangarriagoa sustatzeko duen konpromisoa betetzeko". Jardunaldia Aramotz parkean egingo dute, 10:00etan. Partaideak bertan elkartu eta San Andresera elkarregaz joango dira. Egitasmoak LH 4. mailako eta 6. mailako ikasleen lankidetzara eragitea du helburua.

San Andreseko askaldegiko parkean 100 zuhaitz landatuko dituzte eta Durangoko Udalak gurasoen lankidetzara eskatu du.

Zure iritzia, gutuna edo fotodenuntzia helarazteko helbideak: Bixente Kapanaga 9, - IURRETA • Izen-abizenak • telefonoa • helbidea • Nortasun Agiriaren zenbakia **DATUOK BARIK EZ DA GUTUNIK ARGITARATUKO** Alderdi, elkarte edo taldeko iritzia kide baten izenean sinatuta eta ANBOToren irizpideen arabera zuzenduta publikatuko dira. Bidalitako testuak ezingo du 1.500 karaktere baino gehiago izan (tarteak barne).

Pio Pio, eramateko janaria
Arripuko tortilla aukera ezberdinak
Kotxeak eta maskotak garbitzeko aukera
Baserriko ogia (Panarra, Otxandio baserri ogia)

BI-623, 48213 Izurtza
BI-623, 48210 Otxandio

DIBA
K O O P E R A T I B A

Durangaldeko Baserritarren Elkarte

Murueta, 6 ABADIÑO - Tel.: 94 681 87 92



MARTXOAK 8

EMAKUMEEN NAZIOARTEKO EGUNA

> OTSAILAK 19 eta 26an eta MARTXOAK 4
Y TU, MUJER ... ¿QUE PINTAS? (gaztelaraz)
Ahduntzeko taller artistiko interkulturala 3 saio
Olakueta Etxean - Doan
berdintasuna@berriz.eu / 603 83 74 71

> OTSAILAK 24
NEVENKA Antzerkia (gaztelaraz)
19:00 Berrizko Kultur Etxean
10€ (bazkideak 8€)

> MARTXOAK 2
CARLA COLLADO kontzertua (gaztelaraz)
19:00 Berrizko Kultur Etxean
6€ (bazkideak 4€)

> MARTXOAK 7
Mahai-ingurua: EMAKUMEAK ETA KIROLA:
INDARKERIA ETA ERRONKAK BERTINTASUNAREN
BIDEAN (euskaraz)
18:00 Nagusien Etxean - Doan
Ainhoa Tirapu (Athleticeko futbolari ohia)
Ainhoa Azurmendi (kirolari ohia eta EHuko ikertzailea)
eta Amaia Ugarte (emakumezkoen
kirolean aditua den kazetaria).

MARTXOAK 8
Informazioa: mugimendu
feministaren kanaletan eta
Udalaren web-orrian

> MARTXOAK 9
BAGINAREN BAKARRIZKETAK
Antzerkia (euskaraz)
19:00 Berrizko Kultur Etxean
8€ (bazkideak 6€)

> MARTXOAK 16
YERMA Antzerkia (gaztelaraz)
19:00 Berrizko Kultur Etxean
10€ (bazkideak 8€)

> MARTXOAK 23
SARA ZOZAYA Kontzertua (elebiduna)
19:00 Berrizko Kultur Etxean
6€ (bazkideak 4€)

> MARTXOAK 23
HABIAGO IPUINAK
Haurrentzako ipuin-kontaketa (euskaraz)
12:15 Berrizko Kultur Etxean
Doan

EMAKUMEEN NAZIOARTEKO EGUNA

EGITARAU

MOBILIZAZIOAK

2024. MARTXOAK 8

berrizko AZERI GORRIAK



“Askotan istorioak sortu eta kontatu beharra exijitzen diot neure buruari”

Josune Muñoz ikerlari feministak Uxue Alberdi elkarrizketatuko du martxoaren 13an, 18:30ean, lurretako Bibliotekan. Alberdik bere obraz gogoeta egingo du irakurleekin

LITERATURA • E.H./A.R.

Uxue Alberdi Estibaritz idazle eta bertsolaria (Elgoibar, 1984) lurretan izango da Emakumeak Literaturan jardunaldian parte hartzen.

lurretako Emakumeak Literaturan jardunaldira etorriko zara. Honelako topaketak zelakoak izaten dira idazleentzat?

Euskal literatura sistema txikia dela kontuan hartuta, iruditzen zait literaturan azken urteetan gertatu den fenomenorik baiko- rrenetariko bat irakurle taldeena izan dela. Zorionez, ohituta gaude irakurketa taldeei bisita egitera eta haiekin tratu hori izatera. Alde horretatik, etengabeko zirkuitu hori inportantea da, hainbat idazle, hainbat libururik, hainbat irakurle martxan mantentzen ditu eta. Kasu honetan, gehiago da ibilbideari begirako zerbait eta niretzat ez da hain ohikoa. Badira urte batzuk literatur munduan nabilenetik

eta publikatzen hasi nintzenetik, 2007an argitaratu zen nire lehenengo liburua, baina oraindik ere arraro samarra egiten zait ibilbideari begiratzea. Josune Muñoz aspaldidanik ezagutzen dut eta, azken batean, gustuko plaza da, nire lanari buruz eta egunero horretan nabilenari buruz hitz egiteko aukera eta irakurleekin partekatzeo aukera eskaintzen duelako.

2007an kaleraturiko lehen liburutik, Aulki Jokoa nobelatik, hona begiratu-ta, zein balantze egiten duzu?

Burura etorri zait Onintza Enbeitaren Bizkaiko finaleko amaierako agurra, "irautea da nire meritu/ eta delitu bakarra" esan zuen. Ibilbide bat egunez egun eta jardun horretan mantenduz egiten da, ez dauka beste meriturik. Oso txikia nintzenetik letrazalea naiz, baita bertsozalea eta literaturazalea ere. Umetan ez nuen ikusten hori ofizio posible modura, baina memoria daukadanetik, irakurtzen, idazten

ikusten dut neure burua eta horrela hasi nintzen. Gero, kazetaritza ikasi nuen, ez nuelako idaztearekin zerikusirik zuen beste karrerarik ezagutzen. Euskaraz idatzi nahi nuen, eta garai hartan ez zitzaidan Literatura Konparatua eta Kritika ikastea bururatu. Inbidia ematen dit. Azken finean, erabaki guztiak idazketa eta letrak erdian jarrita hartu ditut. Orduan, ibilbidean emaitzak ikusten dira, kaleratutako liburua edo tituluak, baina azkenengo dozena bat urtetatik hona, batez ere idazteko eta irakurtzeko erabili dut denbora. Lur alaba jaio zenean, ordura arte jardunbide nuen kazetaritza albo batera uztea erabaki nuen. Harrezkero, idazteari, irakurtzeari, bertsoari, eskaini diot jarduna.

Gogoratzen duzu idazlea izatea edo letretara dedikatuko zinela erabaki zenuen momentua?

Bai, txiki-txikitan izan zen. Erabakiak pausoka hartzen dira, ha-

m8
Emakumeen nazioarteko eguna

MARTXOAK 8, OSTIRALA:
19.00tan elkarteratzea plazan

MARTXOAK 9, ZAPATUA:
10.30-13.30 Emakume sortzaile eta ekoizleen azoka
13.00 Trikipoteoa
14.30 Bazkaria (nagusien gunean)
16.30 Bingoa
18.00 Taldeko argazkia
19.00 Irati Otadui bakarlarria (Arritokin)
22.00 DJ Txululu (Herriko tabernan)

OHARRA: Bazkarirako izen-ematea martxoak 1a baino lehen udaletxean. Jakinarazi intolerantziarik baldin badago (Nagusien menua 20 euro/ umeena 15 euro)

MAÑARIKO UDALA

mar urterekin ez nuen pentsatzen zer karrera ikasiko nuen, baina Elgoibarren antolatzen ziren literatur eta bertso lehiaketetan parte hartzen nuen eta ahalik eta ondoen egiten saiatzen nintzen. Ume-umetatik izan nuen bertso eskola batera joateko gogo. Aitari hori eskatzen nion, bertso eskolara eramateko, eta Ermuko bertso eskola batera joateko aukera izan nuen. Ikasketen modalitatea aukeratzekoan, zientziak ala letrak aukeratu behar horretan, argi nuen letretatik joko nuela. Kazetaritza horregatik egin nuen, istorioak ahoz eta idatziz kontatzeko. Klasetatik kanpora bertsoan ikasi nuen Bilbon, gidoigintza ikastaroak egiten hasi nintzen, Erasmus egonaldia egindakoan idatzi egin nuen... Zorionez, idazteko bulkada hori goiz identifikatu nuen. Eta inguruak ere lagundu dit. Etxean oso letrazaleak izan gara. Etxea liburuz josita egon da beti. Aita euskara eta literatura irakaslea izandakoa da. Amak eta izebak liburu denda bat izan dute 45 urtean. Niretzat ez da eremu arrotza izan. Elikatu egiten ninduten.

Bulkada hori ez da eten. Gaur egun, zein da sortzera bultzatzen zaituen txinparta hori?

Zerk bultzatzen gaitu sortzera? Bada, seguruenik, zauriren bati

edo ezin kokatu bati emandako erantzun bat izan daiteke. Hor, norbere burua ahalik eta ondoen espresatzeko nahi bat dagoela esan-

Literaturaren definizio posible bat ahotsa testu bihurtzea izan daiteke; bai norbere barne ahotsa eta bai inguruko ahotsa

go nuke. Hau da, mundua norbere buruari azaltzeko eta norbere burua munduari espresatzeko nahi bat. Sortzaile askoren oinarrian ezinegonak egon daitezke, haurtzaro bakartiren bat akaso, beharbada minen bat. Orduan, idazten ari naitzen, egon behar dudak lekuan nagoela sentitzen dut. Askotan istorioak sortu eta kontatu beharra exijitzen diot neure buruari. Ez diot neure buruari bakean egoten uzten. Esango nuke sormen lanetan gabiltzan denok partekatzen ditugun mekanismoak direla. Munduan egoteko modu bat da. Gure ezinegona lantzeko, forma emateko eta besteengana zubi bat eginda heltzeko modu bat da.

Josune Muñozek dio zure obraren ezaugarri nagusiak estiloen hibrida-

zioa eta ahozkoasuna direla. Bat zatorz analisi horregaz?

Bai, esango nuke nire lanetako asko entzute ariketatik abiatzen direla. Nire ustez, literaturaren definizio posibletariko bat ahotsa testu bihurtzea izan daiteke, bai norberaren barne ahotsa eta bai inguruko ahotsa, hizketak testu egitea. *Aulki Jokia* eleberrian gure aiton-amonak zirenei eta haien kuadrillakoei egindako elkarrizketak, obserbazioak, zeuden oinarrian; *Jenisjoplin*-en oinarrian, 50 ordutik gorako ahots grabazio daude; *Kontrako ezarririk* saiakera feministan hama-bost emakume bertsolariri egindako elkarrizketak daude oinarrian, eta *Dendaostekoak* lanaren atzean amari eta izebari denda ostean egindako grabazioak daude. Hor

Askotan egin izan dizkigute honako galderak: "Zergatik dira zure pertsonaia guztiak emakumeak?" edo "zure literatura femeninoa da?"

ere izango dira beste 50 bat ordu. Oraintsu *Belarriko kilkerra* argitaratu dugunean, hor ere norbaitek kontatutako istorioak jasotzen ditut. Bai,

ahozkoasun hori konstante bat da. Dena dela, emaitzari dagokionez, lan batzuk gertuago daude ahozkoatik, eta beste batzuk urrunago. Baina bai, ahotsaren entzute hori bada nire egiteko modu bat.

Kontrako ezarririk saiakeragaz bertsolaritzari begira ipini zinen, optika feminista bat hartuta. Ikuspegia literaturara ekarrita, euskal literatura joan ote zaigu inoiz kontrako ezarririk?

Nire ustez, euskal literatura eta bertsolaritza euskal jendartean kokatuta daude eta ezagutzen ditudan jendarte guztiak bezala, euskalduna ez da berdinkidea, ez da berdinzalea. Matxista da. Horrenbestez, hori gauza guztietan islatzen da. Ni literaturan plazaratu nintzanean, uste dut genero markatuko idazle modura plazaratu nintzela, idatzi egiten zuen neska gazte modura. Askotan galdetu izan didate "non igartzen zenuen hori?". Bada, gauza askotan. Garai berdintsuan plazaratu ginen Karmele Jaio, Eider Rodriguez, Katixa Agirre, Irati Jimenez, ni, eta askotan egiten zizkiguten honako galderak: "Zergatik dira zure pertsonaia guztiak emakumeak?" edo "zure literatura femeninoa da?". Gizonezkoei ez zitzaizkien kontrako galderak formulatzen. Argazkilariek esan izan didate liburua begien parean jartzeko, modu horretan begiak

nabarmentzeko. Halantxik esan zidan argazkilaria batek: "Zure begiak iruditzen hartzeko eskatu didate". Horrez gainera, argitaletxeetako editore guztiak gizonezkoak ziren, ni baino hogeita bat urte helduagoak. Haien berrikosten zituzten gure lanak. Horrenbestez, *Kontrako ezarririk* bezalako ariketa bat egin daiteke eremu guztietan. Musikan, kazetaritzan, ikastetxeetan. Literaturan ere bai.

Zelan bizi dituzu Martxoaren 8a eta horren bueltako aldarrikapenak?

Bizitza baten parte modura. Zorte onez, emakume feministen ondorengoa naiz, nire emakume erreferente nagusiak, ama eta izeba, antolatuta zeuden feminismoan ni jaio aurretik, eta herri mailako lan handia egin dute. Aisialdia kirolaren bitartez aldarrikatu zuten, baita emakumeek eurek planak edo bidaiak bakarrik egitea. Gainera, abortuaren eskubidearen alde eta dibortzio eskubidearen alde borrokatu ziren. Gure aurreko emakumeek egin duten bide horretan gertu-gertuko emakumeak egon dira. Bertso eta literatur plazek egin naute, neurri batean, feminista. Niretzat Martxoaren 8a borroka eta aldarrikapen egun bat da eta, aldi berean, bada urte osoko eta urte askotako antolakuntza lanean jarraitzeko modu bat.

"Iurretako saioan giro intimoa eta beroa sortzen ahaleginduko gara"



Josune Muñoz. HIRUKA.

IURRETA • EKAITZ HERRERA

Josune Muñoz ez da berria Iurretan. Filologo eta ikerlari feminista bilbotarrak urteak daramatza Iurretako Bibliotekak antolatzen dituen jardunaldietan parte hartzen. Askotan dinamizatu ditu euskal idazle eta irakurleen arteko saioak Ibarretxe Kultur Etxean.

Horren lekuko dira Mariasun Landa, Miren Agur Meabe, Arantxa Urretabizkaia, Itxaro Borda, Karmele Jaio, Laura Mintegi eta Yolanda Arrieta. Aurten, Muñozek Uxue Alberdi elkarrizketatuko du irakurleen aurrean. Eta ohikoa duen eran, "gozatzeko moduko espazio bat" sortzea izango du helburu.

"Iurretako saioan giro intimoa eta beroa sortzen ahaleginduko gara. Beste leku batzuetan esatea kostatzen direnak esatea ahalbidetzen dute horrelako espazioek. Disfratatzeko moduko espazioa izaten da", azaldu du Muñozek.

Hitzordua ipinita dago. Eta gonbitea, eginga. Idazlea eta literatura ikerlaria martxoaren 13an egongo dira Ibarretxe Kultur Etxean, 18:30ean, irakurleen gozamenerako. Eguaztenez landuko dutenaren atariko lez, Uxue Alberdiren obraren ezaugarri bi azpimarratu ditu Muñozek: "Estiloen arteko hibridazioa eta ahozkoasunagazko gertutasuna". "Kontuan hartu behar da Alberdi bertsolaria ere badela, eta bere lanetan garrantzi handia ematen diola ahozko literaturari. Gainera, errelatoak, eleberri laburrak eta material berri ugari sortu ditu ikuspuntu feministatik. Horrez gainera, *Ez da kasualitatea* egitasmoari buruz ere berba egingo dugu. Emakume bertsolariek bidean aurrera egiteko izandako oztropoi buruz", aurreratu du Muñozek.

MARTXOAK 8 MARZO IURRETA	
MARTXOAK 4 18:30 - 20:00 WIKIEMAKUMEOK (Dokumental kolaboratiboa) Ibarretxe Kultur Etxean Aldez aurretik izena emanda: biblioteka@iurreta.eus 946 812 726 / 688 863 736	MARTXOAK 9 14:00 - 19:00 BAZKARIA ABORO JATETXEAN Aboro jatetxea izena ematea eta txartel salmenta Ibarretxe Kultur Elkarte
MARTXOAK 5 18:30 BERBALDIA "Mendekotasunean zaintza lanak ikusaraztea. Egiteke dagoen zeregina" (Dinamizatzailea: Esther Alonso Vallina) Ibarretxe Kultur Etxean Aldez aurretik izena emanda: gizarte-ongizate@iurreta.eus 946 215 372 / 688 696 503	MARTXOAK 13 18:30 BERBALDIA Uxue Alberdi Ibarretxe Kultur Etxean Sarrera gonbidapenarekin biblioteka@iurreta.eus 946 812 726 / 688 863 736
MARTXOAK 8 18:00 ADIERAZPEN INSTITUZIONALAREN IRAKURKETA Herriko elkarte eta herritarrei irakurketan parte hartzeko gonbidapena Askondo MANIFESTAZIOA (Jarraian Durangoko manifestazioa) Askondo / Bixente Kanpanaga / Maspe / Bidebarrieta / Bixente Kanpanaga / Askondo	MARTXOAK 15 18:00 - 19:00 HERRI KIROLAK Herritar guztiok zuzenduta Askondo
MARTXOAK 7 - 11 9:00 - 13:00 / 17:00 - 20:00 ESCAPE JOKOA LILITH (Ordubeteko eta 6 pertsonako txandak) Ibarretxe Kultur Etxean Aldez aurretik izena emanda: gizarte-ongizate@iurreta.eus 946 215 372 / 688 696 503	MARTXOAK 19 18:30 - 20:00 DOKUMENTALA "Aire" Ibarretxe Kultur Etxean Aldez aurretik izena emanda: gizarte-ongizate@iurreta.eus 946 215 372 / 688 696 503
	MARTXOAK 21 19:00 POESIA Koro Benito eta Veronica de Cos Ibarretxe Kultur Etxean Aldez aurretik izena emanda: biblioteka@iurreta.eus 946 812 726 / 688 863 736

Zornotzako emakumeen kartzela, gerizpetik argira

El Carmelon egon zen presondegiaren inguruko dokumentala prestatzen dabil udala. Ikus-entzunezkoa azken fasean da eta maiatzean estreinatu gura dute



Dokumentalerako Zornotzako emakumeekin grabaturiko sekuentzia.

MARTXOAK 8

Emakumeen Nazioarteko Eguna

MARTXOAK 1, OSTIRALA	MARTXOAK 6, ASTEAZKENA
<p>18:00-20:00 "ZIKLOA EZAGUTZEN" Eskolako gimnasioan Antolatzailea: Zaparrada Elkartea</p>	<p>17:00-18:00 Argazki erakusketa (Fekoor elkartea) Oharra: martxoaren 1etik 10era argazkiak Kontzejuzarrean jarrita egongo dira Antolatzailea: Nahikari Emakume elkartea</p>
MARTXOAK 8, OSTIRALA	MARTXOAK 9, LARUNBATA
<p>12:00etan Kontzentrazioa: MARTXOAK 8 EGUNERO DA eta Adierazpen Institutuzalaren irakurketa. Udaletxe aurrean Ondoren eskolako haurrek "Konplize ditut eta" abestia abestuko dute. Antolatzailea: Udala (Berdintasun Kontseilua) eta eskola</p> <p>18:00-20:00 "ZIKLOA EZAGUTZEN" Eskolako gimnasioan Antolatzailea: Zaparrada Elkartea</p>	<p>12:30-13:30 Solasaldia argazki erakusketan agertzen diren emakume batzuekin: "Gure gorputzak hainbat lurralde" Antolatzailea: Nahikari Emakume elkartea</p> <p>16:00etan Emakumezkoen Gomazko Paleta Elite txapelketa (finala) Herriko frontoian Antolatzailea: Udala eta Euskadiko Euskal Pilota Federakuntza</p>
MARTXOAK 10, IGANDEA	
<p>12:30etan Antzerkia: Pronoia Kontzejuzarra Hizkuntza: Gaztelera Norentzat: Gazte eta helduentzat Antolatzailea: Udala (Berdintasun Kontseilua)</p>	

ZORNOTZA • JONE GUENETXEA

Gerra zibileko hainbat pasarte latz bigarren mailan geratu zen, historialarien eta gizarte osoaren ahanzturan. Emakumeen kartzelatan gertaturikoa da horren adibiderik argienetariko bat. Hainbat hamarkada pasatu behar izan da kartzela horietan zer gertatu zen aztertzen hasi arte. Frankistek emakumeentzako kartzelen zirkuitu bat sortu zuten estatu osoan. Katalunian hasi ziren: Tarragonan, Gironan, Bartzelonan... Mallorcan eta Andaluzian ere kartzela asko sortu zuten. Garrantzitsuena Malagakoa izan zen. Madrilen Ventasekoa zegoen, Las Trece Rosas emakume taldea egon zena. Guadalajaran, Oviedon... Euskal Herria ez zen salbuespena izan, eta Saturraranen, Durangon eta Zornotzan ere sortu zituzten emakumeen kartzelak. Preso zeuden emakumeek presondegiatan sustrairik eta lagunik ez egiteko, alde batetik bestera eramaten zituzten. Etsaiaren menpe zeudela sentiaraztea zuten helburu.

Dokumentala grabatzen

Presondegi horietan bizitakoa jaso guran, azken urteetan hainbat lanketa egin dute. Azkena, Zornotzako Udalak martxan ipini duen dokumentalaren grabazioa da. Ikus-entzunezkoa maiatzera prest izatea aurreikusten dute.

Momentu honetan proiektua azken fasean sartuta dago.

Gaur egun El Carmelo ikastetxea dagoen eraikina emakumeen kartzela izan zen 1939tik 1947ra bitartean. Zortzi urtean 2.000 emakume inguru pasatu ziren presondegi honetatik, eta 48 lagun hil ziren bertan.

Zornotzako presondegitik pasatu ziren emakumeen testigantzek urte horietan han bizitako egoera lazarriren berri ematen

Zortzi urtean 2.000 emakume inguru pasatu ziren presondegi honetatik, eta 48 lagun hil ziren bertan

Tomasa Cuevasek hiru liburu idatzi zituen, Zornotzako eta beste kartzela askotako presoek lekukotzekin

dute. Tomasa Cuevasen lekukotza aipatu daiteke bereziki. Hiru liburu idatzi zituen, Zornotzan eta beste kartzela askotan egoniko presoek lekukotzekin. Komunista aktiboa zen. Berari eskerrak, Zornotzako kartzelari buruzko

informazioa jaso daiteke. Trinidad Gallego emagina Tomasa Cuevasegaz batera egon zen preso Zornotzan. Gallegok ama eta amama zituen kartzelan. Hirurek bat egin zuten Zornotzakoan. Emakume honek kontatzen du lurlean lo egiten zutela, ezelango berogailurik barik sasoi hartako neguetan. Emakume bat erditzeaz zegoenean edo umeren bat gaixorik ipintzen zenean, mojei deitzen zieten, baina ez zieten jaramonik egiten. Kartzela bakoitzak mediku bat zuen, baina hildakoak egiaztatzea baino ez zen joaten.

Ascensión Badiola historialariak *Individuas peligrosas* liburua kaleratu zuen, eta lan horretan Zornotzako presondegiari buruz ikertu zuen. Badiolak dioenez, *Redención* deituriko aldizkari bat kaleratzen zuten, propaganda legez. Propaganda horretan, presoek jasoriko hezkuntza eta horrelakoak aipatzen zituzten. Zornotzako kartzelako argazki bat kaleratu zuten, emakume batzuk josteko tailer batean ageri direna. Argazki horretarako, bereziki prestatu zituzten. Horixe da kartzela horretaz ezagutzen den argazki bakarra. Tailer horretan, erregimenerako jantziak egiten zituzten. "Irudi hori eman gura zuten, kartzelaren helburuetariko bat berreziketa zelako, mentalitatea aldatzea. Gorriak izateari

uztea gura zuten, eta frankismo-ko emakume idealak sortzea: emakume katolikoa, bere etxea zaintzen zuena, ama ona, emazte ona", argitu du Badiolak. Beraz, miliziana legez ariztetik oso urrun zegoen eredu bat zen. Emakume hauek gogor zigortu zituzten. "Askok kartzelan amai-



A. Badiola: "Emakume hauek gogor zigortu zituzten. Askok kartzelan amaitu zuten eta asko fusilatu egin zituzten"

A. Badiola: "Kartzelaren helburuetariko bat berreziketa zelako, mentalitatea aldatzea Gorriak izateari uztea gura zuten"

tu zuten eta asko fusilatu egin zituzten", gaineratu du Badiolak. Simona Aspiroz zen nagusia, eta gogor eutsi zion diziplinari.

Badiolak ikertu duenez, kartzela guztiek arautegi bera zuten. Goizetan, jaiki eta gero, ur beroa ematen zieten gosaltzeko. Ondo-

ren, mezak eta errezuak egiten zituzten. Kartzelako zirkuituan denbora bat zeramatenei tailerretan lan egiteko baimena ematen zieten. Zornotzan eta estatuko iparraldeko kartzeletan, josteko tailerrak nagusitu ziren.

Zornotzako presoek gose greba bat egin zuten egoera hori salatzeko. Tomasa Cuevasen bitartez jakin ahal izan dugunez, metrailatu egingo zituztela mehatxatu zituen kartzelako zuzendariak. Hala ere, biharamunean, eman zieten ur beroari ortuariren bat bota zioten. "Kartzela hau emakumeak usteltzeko prestaturiko lekua zen. Zirkuitu osoa horrelakoa zen", adierazi du Badiolak.



Goian, propagandarako Zornotzako kartzelako tailerretan ateratako argazkia; behean, El Carmelo ikastetxea.

Martxoak 8


Emakumeen Nazioarteko Eguna

Andragunea 15 urte *zurekin*



“Aire!” dokumentala bidaia emozional bat ere izan da parte hartu duten gazteentzat”

Musika ikasle batzuek Maurizia Aldeiturriaga panderojolearen bizitzan eta musikan sakontzeko aukera izan dute 'Aire!' dokumentalean



Carlos Iglesias Serrano
Ekoizpen zuzendaria
DURANGO | 1978

Musikal generoko dokumentala dela esan daiteke, Mauriziaren bizitzan inspiratua. Bidaia emozional bat ere bada

erantzun zieten. Gure proiektua azaldu genien. Euskal Herrian ere horrelako prozesu bat egin genuen eta beste gazte batzuk aukeratu genituen. Azkenean, 16tik 26 urtera arteko hamahiru gazteek parte hartu dute proiektuan: Euskal Herriko seik eta Kataluniako zazpik. Hurrengo pausoa kokapena aukeratzea izan zen. Maurizia zeberioztarra zen eta grabazioa Zeberioiko baserri batean izatea lortu genuen. Gainera, baserri handia da, toki aparte batean dago, lorategi handi bat du... Interesgarriak iruditzen zitzaizkigun ezaugarri batzuk betetzen zituen.

Dokumentala bera zelan antolatu zenuten?

Parte hartzaileek proiektuari buruzko oinarriko informazioa zuten; hau da, bazekiten denbora batean toki baten egongo zirena, baina ez zuten detaileen berri izan bertara heldu ziren arte. Egunak jardura nagusi bi zituen. Goizetan Mauriziaren figurak sakontzen zuten, eta abiapuntu horretatik identitatea, berdintasuna eta antzerako kontzeptuak lantzen zituzten. Jardura hori dinamizatzeko, Naroa Gaintza musikari eta irakaslearen laguntza izan genuen. Arratsaldeetan musika saioak izaten zituzten eta Mauriziaren figurak oinarrituriko bi-hiru abesti sortzea edo berrinterpretatzea zen helburua. Saio horiek dinamizatzeko, beste musikari bi izan genituen: Carlos Sagi eta Iraide Ansorena.

Ikasleen arteko bizikidetzeta eta lan-kidetzeta zelan jaso dituzue?

Euskaldunek elkar ezagutzen zuten, eta baita katalanek ere, baina euskaldunek ez zituzten katalanek ezagutzen. Baserri-ira heldzerakoan, elkarbizitza prozesu bat bizi izan zuten aste bitan, eta interesgarria izan zen bidaia horri jarraitzea. Bizikide-

ELKARRIZKETA • J.D./A.R.

35 urte joan dira Maurizia Aldeiturriaga panderojole eta abeslari zeberioztarra hil zenetik, baina bere aho-tsaren oihartzunak bizirik jarraitzen du. Azken adibidea Bideografik eta Marmoka Films ekoiztetxeek berari buruz egin duten 'Aire!' dokumentala da. Ez da biopic bat. Beste ertz batetik heldu diote gaiari. Carlos Iglesias dokumentaleko ekoizpen zuzendariak kontatu ditu dokumentalaren nondik norakoak. Zuzenean ikusi gura duenak Traña-Matienan eta lurretan du horretarako aukera, martxoaren 3an eta 19an, hurrenez hurren.

Zelan bururatu zitzaizuen Mauriziaren inguruko dokumental bat egitea?

Nire nerabezaroan sarritan entzuten genuen Mauriziari buruz. Nork ez zuen ezagutzen! Bere abestiengaitik ez bazen, Kortatuz eginiko kolaborazioagaitik edo beste erreferentzia batzuegaitik. Azken urteetan, berak gura barik, kolektibo feministen ikur bihurtu da, plazan emakumearen espazioa aldarrikatzearen alde. Horrez gainera, garrantzitsua da aipatzea Mauriziaren inguruan zeozer egiteko ideia Arteako Udaletik sortu zela, 2019an. 25 urte betetzen ziren Arteako plazan Mauriziaren omenez estatu bat ipini zutenetik.

Zelakoa izan da dokumentazio prozesua?

Mauriziaren ibilbidea erreparatzen duen liburu bat dago. Beste informazio iturri bat bere familia eta lagunak dira. Euskal Filmoteka eta beste artxibategi historikoak ere bisitatu genituen bere figurak sakontzeko. Dena dela, argitu behar dut ez dela dokumental biografikoa bat, ez da biopic bat. Beste zeozer da, Maurizia beti presente dagoen arren.

Zelan deskribatuko zenuke dokumentalaren formatua?

Musikal generoko dokumentala dela esan daiteke, eta Mauriziaren bizitzan oinarrituta edo inspiratuta dago. Horrez gainera, Aire! dokumentala bidaia emozional bat ere izan da parte hartu duten gazteentzat.

Hasieratik zenuten biopic batetik haratago joateko ideia?

Bai, hasieratik geneukan zeozer diferentea egiteko ideia. Ideiari eutsiz, bidean gauza batzuk moldatu ditugu; hala nola parte hartu behar zuten gazteen kopurua, haien jatorria, jo beharreko instrumentuak... Baina oinarria hasierako bera da.

Produktzio lan handia eskatu du dokumentalak?

Mauriziaren figura gure mugetatik atera eta dimentsio handiago bat eman gura genion. Artea he-

MARTXOAK 3, 18:30
DOKUMENTALA
Errota Kultur Etxea (Euskaraz)
GENTZANE MARTINEZ DE OSABA
RUIZ zuzendariak aurkeztua

MARTXOAK 15, 18:30
ANTZERKIA
Errota Kultur Etxea (Euskaraz)

HIRU KORTSE AZUKRE ASKO ETA B ANDY GEHIEGI

Sarrerak Doan
Otsailaren 26tik aurrera,
Errotan eta Mediatekan

Abadiño

MARTXOAK 8
EMAKUMEEN NAZIOARTEKO EGUNA

Udaletik dei egiten dizuegu Abadiñoko mugimendu feministak antolatutako ekitaldietan parte hartzera.

tza, hartu-emanak... badakigu zelakoak diren sarritan. Dokumentalean erakusten dena naturala da, izan zen moduan jaso dugu, ez da antzerkia. Eurentzat giza-esperientzia interesgarria izan zen. Eta guretzat lan egiteko modu berri bat; egunean-egunean gertatzen zenaren barruan geunden. Denontzat aberasgarria izan zela uste dut.

Prozesu horretatik irtendako abestiak dira dokumentalaren kolofoia eta helmuga?

Bai, abestiek izateko arrazoi bat dute; hau da, helburu batez sortu dira, amaiera baterako. Baina hori dokumentala ikusten duenak deskubrituko du. Aurretik jakiteak grazia kenduko lioke.

Dokumentala Zinebi jaialdian estreinatu zenuten, iazko azaroan. Zelan gogoratzen duzu estreinaldiaren eguna?

Hunkigarria izan zen eta apur bat estresagarria ere bai, gure jendearen aurrean egin genuelako. Dokumentalean parte harturiko hainbat gazte ere hantxe izan ziren, hemengoak zein Kataluniatik berriro etorritakoak. Jakina, eurek ez ziren muntaian egon eta ikusmina zuten dokumentala zelan geratu zen jakiteko. Beti izaten da beldur apur bat

ea zein izango den erreakzioa, baina sorpresa atsegina eraman genuen, jasoriko iritziak oso onak izan ziren eta. Dokumentalak zeozer berezia transmititu ziela esan ziguten, euren barruan zeozer esnatu zuela. Beraz, alde horretatik oso pozik gaude. Azkenean, esperientzia honek elkarrengaz dokumental bat egin izanak baino lorratz sakonagoa utzi digu. Hartu-eman berezia izan da.

Abestiak helburu batez sortu dira, baina hori dokumentala ikusten duenak deskubrituko du

Arratiako zein herritan estreinatu duzue Aire?

Baten bat faltako da, baina gehienetan proiektatu dugu: Igorren, Artean, Zeberion, Lemoan, Areatzan, Diman... Pozarren gaude jaso dugun feedbackagaz. Beste herri batzuetan ere izan gara. Martxoan bederatzi emanaldi ditugu, tartean Iurretan eta Abadiñon. Beraz, dokumentalagaz herririk herri ibiliko garen hilea izango da.



Gazteek aste bi eman zituzten Zeberioko baserri batean.

Zal di bar



Martxoak 3

Emakumeen 3x3 saskibaloia txapelketa

11:00 Kiroldegian

Martxoak 7

Toti Martinez de Lezea,
Emakume nagusi baten bakarrizketa

18:30 Nagusien etxean

Martxoak 9-10

Helmugak antolatutako erakusketa liburutegi zaharrea

Martxoak 9; 11:00-13:30/17:00-20:00

Martxoak 10; 11:00-13:30

Martxoak 8

19:00 Manifestazioa udaletxeko plazatik hasita

21:00 Emakumeen afari eta dantzaldia

Martxoak 23

Helmugak antolatutako txangoa



Zaldibar
Elizateko
Udala

"Emakumeek espazio seguru lez ikusi eta sentitzen dute Andragunea, eta horixe da espazio honek izan dezakeen ebaluaziorik onena"

Martxoaren 8an Andragunearen 15. urteurrena ospatuko dute Durangon. Omenaldi ekitaldia 17:30ean izango da



Nagore Uribe-Etxebarria Olabarrieta eta Kety Arrabal Navas.

DURANGO • MAIALEN ZUAZUBISKAR

Aurten 15 urte beteko dira Durangon Andragunea sortu zutela. Data seinatu hori ospatzeko, ekitaldia egingo dute martxoaren 8an, 17:30ean. Urteurrenaren atarian, ANBOTO Kety Arrabal Navas Durangoko Berdintasun teknikariagaz eta Nagore Uribe-Etxebarria Olabarrieta Berdintasun dinamizatzaileagaz batu da.

Aurten Andraguneak 15 urte egingo ditu Durangon. Zuek hasieratik zaudete?

Kety Arrabal: Andragunea bera, ofizialki, 2009an inauguratu zen, baina horren aurretik Berdintasun Arloa sortu zen, batzorde politikoagaz eta berdintasun kontseiluagaz. Hor hainbat eskaera egon zen, batez ere mugimendu feministatik, eta eskari nagusia emakumeentzat etxe bat sortzea izan zen. Ni hasierako pauso horietatik nago, Durangon 2007an hasi nintzen eta.

Nagore Uribe-Etxebarria: Ni apur bat geroago sartu nintzen. Ez nintzen hasierako urte horietan egon. Andraguneak zortzi bat hilabeteko ibilbidea zeukanean sartu nintzen, 2010eko urtarrilean.

AMOREBIETA-ETXANO · 2024

EMAKUMEEN NAZIOARTEKO EGUNA

Martxoak 1
ARGAZKI ERAKUSKETAREN AURKEZPENA
18:00 ZELAIETA

Martxoak 1 - 22
ARGAZKI ERAKUSKETA
ZELAIETA
LUMINISZENTEAK
Emakumeen aurkako indarkeria ikusezinak, eta erresilientzia historia zenbait Palestinan, Indian, Lakota Nazioan eta Euskal Herrian.

Martxoak 4
18:00-20:00 ZELAIETA. Auditorioan
BERDINTASUN BERBALDIK
Bi idazle zornotzarrekin Ohiane Amantegi eta Lola López de Lacalle.

Martxoak 6
TOPAKETA
18:00-20:00 ZELAIETA
"LGTBI+ SEXU-ANIZTASUNA ERE GURE SEME-ALABEN KONTUA DA"
Gurasoei edo adingabeen tutoreei zuzendutako hitzaldia

Martxoak 8
12:00 Herriko Plaza
IRAKURKETA INSTITUZIONALA eta KONTZENTRAZIOA
BESTELAKO EKINTZAK GAZTERIA
17:00-20:00 GAZTETXOKO EMAKUMEEN MEMORI eta TXAPAK
20:00-23:00 GAZTETXOKO BERDINTASUN SCAPE ROOM
23:15 ZELAIETA
BAKARRIZKETA · Maria Blanco
"Mariak, bakarrizketa bat baino askoz gehiago eskeintzen du. Ikuskizun bizia, arina eta trebea"

Martxoak 9
10:00-15:00 Zelaietako parkean
EMAKUME NEKAZARI eta ARTISAUEN AZOKA
TRIKI PIU taldeak girotua
12:30 SARIEN BANAKETA
MARIXELARRE



amorebieta etxano
UDALA AYUNTAMIENTO

M8

MARTXOAK

Zelako garaiak izan ziren?

K.A.: Bilera errazak eta ez horren errazak egon ziren. Eskaerak maila batekoak ziren eta errealtateak beste batekoa zen. Hasieran, ez geneukan gaur egun dugun lekua. Pinondo Etxean eremu txiki bat geneukan. Eta mugimendu feministak beste posizionamendu bat eskatzen zuen, erreferentziazko gune bilakatzeko. Hasieran beti esaten nuen, emakumearen etxe bat barik, apartamentutxo bat genuela. Baina lekutxo hori edukiz bete genuen eta etxe propio bat behar genuela justifikatu genuen.

N.U.: Eta Lariz dorrera etorri ginen. Zelanbait gorpuztu egin genuen emakumeen etxea. Pinondon gustura egon ginen, baina ez zen gure etxea. Duintasuna islatzen duen eraikin honetan lortu genuen hori gorpuztea.

2017an Lariz dorrera lekualdatu zineten, eskari historiko bati erantzunez.

K.A.: Nik ez nuen momentu hori bizi izan. Amatasun bajaran nengoen eta garai horretan ez nengoen

bertan. Baina ez nuen momentua galdu gura izan eta inauguraziora etorri nintzen, publiko modura. Nire ustez, hona etortzea aurrerapauso garrantzitsa izan zen.

N.U.: Lekualdatzeak ekintza gehiago planteatzeko aukera eman zigun, topagunea indartzeko eta genero arrakala digitala murrizteko, besteak beste. Espazio fisikoak erraztu egin du emakumei sorturiko beharriari erantzutea, edo horietara egokitzea. Azken batean, Andragunea beharrian batzuei erantzuteko sortu zen, eta beharrian horiek beste batzuk ekarri zituzten. Etxe honeguz, egokitzea eta erantzunak ematea lortu genuen.

Urte hauetan guztietan, asko aldatu da Andragunea?

K.A.: Esentzia lehengoa bada ere, Andragunearen helburua izugarri aldatu da. Esaterako, bost ikastarogaz hasi ginen, eta gaur egun 25 ditugu. Horrez gainera, hasi ginean ez genuen topagune izaera hori, eta, denborak aurrera egin ahala, gauza gehiago gehitzen joan

dira eta erabaki garrantzitsuak hartu dira Andraguneak gaur egun duen izaera edukitzeko.

N.U.: Aldaketa asko izan dira, bai edukiari dagokionez, eta baita parte-hartzaileei, espazioari eta ikusgarritasunari dagokienez ere. Eta horrek emakumeentzako erreferentziazko gune bihurtzea ekarri du, bai durangarrentzat eta baita eskualdekoentzat ere.

Esentzia lehengoa bada ere, Andragunea izugarri aldatu da hamabost urte hauetan

Gaur egun zelan dago osasunez Andragunea?

N.U.: Andragunea, espazio aldeetik, topera dugu. Alde batetik, seinale ona da hori. Baina momentu honetan ez dugu aukerarik handitzen jarraitzeko. Gure datu basean, esaterako, 2.000 emakumeren fitxak ditugu, eta horrek

erakusten du gune honek zenbaterainoko eragina duen. Emakumeek espazio seguru lez ikusi eta sentitzen dute Andragunea, eta horixe da espazio honek izan dezakeen ebaluaziorik onena.

K.A.: Andraguneak eta bertako ikastaroei emakumeen arteko sareak sortzeko balio izan dute, eta guretzat oso polita da hori ikustea. Baita emakumeek izaten duten eboluzioa ikustea ere.

N.U.: Guretzat luxua da urteen bilakaeran emakumeen ahalduzko prozesu hori ikustea. Gainera, horrek asko laguntzen digu aurrera begira, nondik jo behar dugun jakiteko.

Aurrera begira, zeintzuk erronka dituzue?

N.U.: Hainbat erronka dugu, zorionez. Zerbitzuak, eskaintzak eta profesionalak zabaldu edo zehaztea; baliabideen dimentsioari egokitzea; Andraguneko emakumeen dibertsitatea areagotzea; espazioa aldatzeko edo hobetzeko aukera kontuan izatea; eraldaketa sozialaren eta ikuspegi feministaren

esentzia mantentzea; indarkeria matxistaren prebentzioa hautematea eta bideratzea lantzen jarraitzea; Andragunea erabiltzen duten emakumeen parte hartzea sustatzea eta beste eragile batzuekin erlazionatzeko bideak ezartzea, besteak beste.

Andraguneak emakumeen arteko sareak sortzeko balio izan du, eta oso polita da hori ikustea

Beste ezer gehitu gura duzue?

K.A.: Emakume guztiei Andragunera bertaratzeko gonbidapena egiten diegu, baita emakume guzteei ere. Besoak zabalik hartuko ditugu eta emakume guztien proposamenak entzuteko prest gaude.

N.U.: Urte batetik bestera programazioa egiten dugu, eta egiten dizkiguten proposamenak kontuan hartzen ahalegintzen gara beti. Gure jabetze helburuekin bat badatoz, kontuan izaten ditugu.



Andraguneak antolatutako ekintzetako argazkiak.



MARTXOAREN 8a

EMAKUMEEN NAZIOARTEKO EGUNA

Gure eskubideak aldarrika ditzagun lau haizetara, edonon aske bizi gaitezen zapalkuntzarik gabe!

MENDI MARTXA

- Urkiolara, martxoaren 2an, 08:30ean plazan, emakumeentzat soilik. 5 orduko ibilbidea, Urkiolan bazkaldu eta buelta lineako busean.

Izena emateko: berdintasuna@elorio.eus - 94 657 08 09

KIROLDEGIA

- Martxoko ikastaroetan, emakumeek doako sarbidea libre dauden plazak bete arte

- Gimnasioan emakumeen presentzia indartzeko doako jarduerak, martxoan zehar. Ostiraletan, 14:45etik 15:45era

* Deitu kiroldegira

ITURRI KULTUR ETXEA

- Catarsi feminista erakusketa, martxoan zehar

ARRIOLA

Zuzeneko ikuskizunak

- Martxoak 9: AITZINDARIAK (Dantza garaikidea)
- Martxoak 23: BAGINAREN BAKARRIZKETAK (Antzerkia)


Zinea

- Martxoak 10 eta 11: LAS CUATRO HIJAS
- Martxoak 24 eta 25: EL COLOR PURPURA
- Martxoak 30, 31 eta apirilak 1: HOW TO HAVE SEX

*Emanaldi guztiak 20:00etan izango dira /



Elorrioko udala



La sed del minotauro

ANTZERKIA ZORNOTZA :: Martxoak 1

Khea Ziater konpainiaren azken obra Zornotzan ikusgai

Otsailean Bilboko Arriaga antzokian estreinatutako *La sed del Minotauro* antzezlanaren taularatuko du Khea Ziater konpainiak, gaur, Zornotzan. Antzerki taldearen zortzigarren "film eszenikoa" da hau, Alex Gerediaga dramaturgia arduradun eta zuzendariaren berbetan. Era berean, egin duten

lanik "dibertigarriena" da. Fun-tsean, maitasun istorio bat da antzezlanaren, maitasunaren bila dabilen bost antiheroirena.

Gerediagak azaldu duenez, "umore ukituak ditu, baina, batez ere, drama bat da" eta 90eko zinemagintza igartzen zaio. "Coen anaiei eta David Lyncheri eginiko keinuak ikusi daitezke", gehitu du. Jon Ander Urresti, Ainhoa Artetxe, Leire Ucha, Arrate Etxeberria eta Txubio Fernandez de Jauregi dira aktoreak. Zornotza Aretoan izango da emanaldia, 20:00etan.

kimuak.wordpress.com webgunean sartu behar da, eta behin-behineko zerrenda martxoaren 8an egingo dute. Kontakturako: kimuak.a.e@gmail.com

Martxoaren 6an

DURANGO berbaldia
'Etxebizitza eta gazteak: aukerak eta baliabideak ezagutzuz', 18:30ean, Elkartegian. 18tik 34 urtera arteko gazteei zuzenduta.

Martxoaren 7an

ZORNOTZA kontzertua
Kulunka taldeak 'Hegoak' lana aurkeztuko du, 20:00etan, Zelaietako kontzertu gelan.

Martxoaren 10era bitartean

ABADIÑO izen ematea
Sendabelarrei buruzko ikastaroan izena emateko epea zabalik, martxoaren 10era bitartean. Saio bi egingo dira: martxoaren 16an eta apirilaren 20an, 10:00etatik 14:00etara, Errota kultur etxean. Errotan bertan, Udal Mediatekan edo www.abadiño.org webgunean eman daiteke izena.

Martxoaren 17ra bitartean

DURANGO erakusketa
'Arketipoak' (Jenni Alvarado), Arte eta Historia Museoa.

ZORNOTZA erakusketa
'Emakumeak aberria eginez' erakusketa, Zelaieta zentroko lehenengo solairuan.

Martxoan zehar

BERRIZ izen ematea
Haur eta nerabeen kontrako sexu abusuei buruzko ikastaroa, Umerrik antolatuta. Irakasleei, osasun langileei eta interesa duen edonori zuzenduriko ikastaroa apirilaren 27an izango da, 10:30etik 13:30era. Zabalik dago epea izena emateko. Hizlariak: Maitane Urizar irakaslea, sexu abusuetan aditua eta ikerlaria, eta Amaia Arbeloa medikuntza doktorea, lehen arretako pediatra eta Euskal Herriko Pediatría Elkartearen Gizarte Pediatría Taldearen koordinatzailea.

DURANGO erakusketa
Luis Iturrioren kirol argazkiak, Jai Berri tabernan. Argazkien salmentatik jasoriko dirua Geu Be elkarteari emango diote.

Martxoaren 1ean

DURANGO tailerra
Mahai jolasen tailerra, 17:30ean, Bizenta Mogel liburutegian.

DURANGO jaialdia
Dendak Bai Fest, Landako Gunean (10:00-14:00/17:00-21:00).

ELORRIO kontzertua
Pelax + Txopet, 22:00etan, Ateneoan.

IURRETA zirkua
'Ping Pang' (Xabi Larrea), 17:00etan, Ibarretxe kultur etxean.

Martxoaren 2ra bitartean

IURRETA deialdia
Kultur sorkuntza sustatzeko Sormen Iurreta bekarako deialdia zabalik. Proiektuak martxoaren 2ra bitartean aurkeztu daitezke, honako modalitate hauetan: literatura lanak edo ilustrazioa, sorkuntza eszenikoa, ikus-entzunezko lanak, erakusketak edo argazki konpilazioak sortzeko proiektuak, musika sorkuntza eta kultur proiektuak. Oinarriak: Ibarretxe kultur etxean, HAZen eta www.iurreta.eus webgunean.

Martxoaren 2an

DURANGO jaialdia
Dendak Bai Fest, 10:00etatik 21:00etara, Landako Gunean.

ZORNOTZA kontzertua
'Haize doinuen artean' (Zornotzako Musika Banda), 20:00etan, Zornotza Aretoan.

Martxoaren 3an

DURANGO jaialdia
Dendak Bai Fest, 11:00etatik 14:00etara, Landako Gunean.

ZORNOTZA desfilea
Pelixe: Urritze institutuko moda desfilea, 17:30ean, Zornotza Aretoan. Bigarren saio bat egingo dute, 19:30ean.

Martxoaren 4tik 7ra bitartean

IURRETA izen ematea
Kimuak elkarteak antolaturiko udalekuetarako izen ematea zabalik, martxoaren 3tik 7ra. Adinaren arabera, udaleku finkoa, ibiltari txikia eta ibiltaria egingo dira, uztailearen 2tik 19ra bitartean. Izena emateko,

Zinema

:: Berriz
KULTUR ETXEA

• **Guardianes del museo**

barikua 1: 17:00

domeka 3: 17:00

:: Durango
ZUGAZA ZINEMA

• **Dune: parte 2**

barikua 1: 18:30 / 20:00

zapateria 2: 16:45/17:15

domeka 3: 16:45/19:15

astelehena 4: 18:00

martitza 5: 18:00

eguztana 6: 19:00

• **Dream Scenario**

barikua 1: 18:00/21:00

zapateria 2: 18:00 / 20:00

domeka 3: 18:00 / 20:00

astelehena 4: 18:15 / 20:00

martitza 5: 18:15 / 20:00

eguztana 6: 19:00

• **La sociedad de la nieve**

barikua 1: 18:00

zapateria 2: 20:00

domeka 3: 20:00

astelehena 4: 19:00

martitza 5: 19:00

• **Kung Fu Panda Lau**

zapateria 2: 17:00

• **Museoaren zaindariak**

domeka 3: 17:00

• **Aida (opera)**

eguztana 6: 19:00

:: Elorrio
ARRIOLA ANTZOKIA

• **Secretos de un escándalo**

zapateria 2: 20:00

domeka 3: 20:00

astelehena 4: 20:00

• **Soul**

domeka 3: 17:00

:: Zornotza
ZORNOTZA ARETOA

• **Negu Hurbilak**

astelehena 4: 20:15

• **Cabeza y corazón**

martitza 5: 20:15

Oraindik ez zara ANBOTOk whatsapp taldeko kide?

Durungaldeko azken albistek jaso gura badituzu batu Anbotoko whatsapp taldera



Bidali 'ALTA'

688 635 041

telefono zenbakira

* Izan zaitetz berriemaile ere.
Bidali zure argazki eta bideoak

anboto



Jesús de Pedro García

Argazkilaria
ZORNOTZA | 1954

“Beti eroan izan dut kamera aldean; uneak argazkietan gogoratzea gura nuen”

Jesús de Pedro argazkilaria zornotzarrak Irudi Profesionalen Espainiako Federazioaren (FEPFI) argazki lehiaketa irabazi berri du otsailean; erretiroa hartu zuenetik, hainbat lehiaketatan parte hartu du eta zenbait irabazi ere bai

ARGAZKIGINTZA • IGOR GALARZA

Zornotzako DePedro argazki dendarikur eta sari zerrenda luzea du erakusgai sarrerako apaletan. Azken orain dela gutxi gehitu du. Izan ere, Irudi Profesionalen Espainiako Federazioak (FEPFI) urtero antolatzen duen argazki lehiaketan garaile izan da Jesús de Pedro Garciak Urdaibain koartzatxo talde bati eginiko argazkia.

Hainbat sari eta izendapen jaso ostean, tartean Goya sari bat 2019an, zer suposatzen du zuretzat FEPFIren sariak?

Bat gehiago da, baina ohorea da horrelako izena eta prestigioa dituen sari bat irabaztea. Oraindino argazkigintzaren dinamikan zaudela esan gura du, eta zure bizitza osoan egin ezin izan duzun zeozer egiten zabiltzala; hau da, argazkiak zure gustura, libreki, egiten. Eta, gainera, gura dudana beste denbora izaten dut maite dudana egiteko.

Ohitu egiten zara lehia garrantzitsuhorietan egotera?

Bai, garrantzitsuena da argazkigintzatik bizi ginela, eta bizi garela, eta hortik bizitzeko hori egon behar dugu. Orain Alex semeak daroa negozioa, eta jendeak argazkilaria profesionalak garelako ikustea

gura dugu, eta argazkigintzagaz gozatzen dugula.

Noiz erabaki zenuen argazkigintza ofizio bihurtzea?

Gazte-gaztea nintzela hasi nintzen argazkiekin lanean. Beste profesio-

Argazkilaria buruan izan behar du irudiaren diseinua. Horixe da gakoa. Gero, egoera desberdinak daude

—

Digitalak irudia zuzenean ikusteko aukerarik emango ez baligu, beste argazki mota batzuk ikusiko genituzke

—

sional batzuekin kolaboratzen hasi nintzen. Garai hartan, deli-neatzaile lanetan nengibilen, baina enpresak itxi egin behar izan zuen eta bide bat aukeratu nuen, argazkigintzarena. Eta gaur egun egiten

ditugunak eginez hasi nintzen: erreportajeak, saioak, ezkontzak, jaunartzeak... Aldiz, orain dudana afizioa ofizioa landu ostean etorri zen. Gaur egun afizio legez egiten badut, aurretik ofizioan aritu naitzelako da.

Nondik etorri zitzaizun afizioa?

Ez dakit, beti eroan izan dut argazki kamera aldean; momentuak argazkietan gogoratzea gura nuen. Ez dakit zergaitik, ez dakit azaltzen nondik sortu zitzaizun afizioa.

Noiz hasi zinen lehiatzen?

Erretiratu nintzenean. Momenturen batean, dendan edo lanen batean semearekin laguntzen diot, baina orain denbora gehiago daukat. Depresio bat igaro nuen, eta haize berria behar nuen. Beraz, naturaren eta hegaztien argazkiak egiten hasi nintzen.

Zergaitik?

Oso gatxa iruditzen zaidalako momentu determinatu horiek harrapatzea kameragaz. Ez da ezagutzen duzun leku bati momentu batean argazkia egitea, ekintza bat gertatzen den momentu hori harrapatu behar duzu. Denbora igarotzeko modu atsegina da niretzat.

Zer dute erakargarria hegaztiak?

Euren mugimenduak, momen-

tuek. Argazki irabazlea azaroan egin nuen. Koartzatxoak Urdaibain elkartzen dira garai horretan, eta lotara zetozen denak. Orduan banekien zein argazki gura nuen: koartzatxoaren mugimenduen silueta: batzuk geldituta, beste batzuk airean...

Argazkigintzan bertsolaritzan legez al da? Hau da, on bat ateratzeko, txar batzuk joan behar direla aurretik.

Bai, baina argazkilaria buruan izan behar du irudiaren diseinua. Horixe da gakoa. Gero, egoera desberdinak daude. Ezkontza batean, esaterako, irudi bat izan dezakezu buruan, baina eguzkiagaitik edo beste faktoreen bategaitik zuk espero ez zenuen moduan irten daite-

ke. Baina jakin egin behar duzu zer argazki gura duzun. Eta naturan ere antzekoa da.

Zer eduki behar du zuk egindako argazki batek?

Nire argazkia ezin da izan inoiz egingo dudana onena. Ikusten badut naturako argazki batean zeozer hobetu dezakezela, zaude seguru hurrengo egunean leku berera bueltatuko naizela. Ezkontza bateko galeriagaz guztiz gustura ez bano, hurrengo ezkontza ahalik eta lasterren ailegatzea gura izaten dut.

Argazki digitalak ateratzek laguntzen dizu bilatzen duzuna aurkitzen?

Argi dago kamera digitalagaz aukera gehiago duzula. Analogikoagaz ezin zenituen momentu berean 20 argazki egin, aurrekontuak gora egingo lukeelako. Gainera, ez zenekien zer argazki egin zenuen, eta askoz ere segurtasun handiagoa behar zenuen argazkia egiteko.

Analogikoa ala digitala gurago?

Digitala ezagututa, ez nuke irtengo analogikoagaz argazkiak egitera. Digitalak badu beste abantaila bat: eginiko argazkian lan egiteko aukera duzu. Analogikoan askoz ere gaxtagoa da hori. Digitalak irudia zuzenean ikusteko aukerarik emango ez baligu, beste kontu bat izango litzateke, eta beste argazki mota batzuk ikusiko genituzke.

Alexek, zure semeak, bide berdina hartu du. Zelako bizipena da beragaz lan egitea?

Egia esango dizut: berak nik eginiko ikusi du, eta uste dut gaitu egin nauela. Gaituzten nau, zalea izateaz gainera, profesionala ere badelako. Detaleak asko zaintzen ditu, oso langilea da, kritikoa... Berak orain urte bi irabazi zuen sari hau.

Demagun ezin duzula Durangaldetik irten eta argazki bat egin behar duzula lehiaketa batera eroateko. Nora joango zinateke?

Ez dut leku kutun bat. Argazkia une eta ekintza batean dago. Agian errekarra joan eta bertako txoriak ura edaten ikusten dituzu, edo orain, zikoinak Zornotzara bueltatu direla, bertara zoaz. Beharbada egun batean pinudi batera joango zara eta ez duzu ezer ikusiko; hurrengo egunean joan eta perretxiko polit batek irten duela ikusiko duzu... Edozer izan daiteke argazkigintza.



MUSIKA • EKAITZ HERRERA

Txistua hainbat formula eta adierazpen artistikotara egokitu daitekeela erakusteko helburuz sortu zuten Hiruzulo jaialdia, orain urte bi. Eta aurten ere musika tresnaren unibertsaltasun hori bera erakutsiko dute San Agustin Kulturguneko oholtzan. Jaizale elkarteak eta Durangoko Udalak gonbidatuta, Garikoitz Mendizabal txistulari prestigiotsuak eta Gorka Hermosa akordeoilari errekonozituak *Sustraien Matxinada* interpretatuko dute. "Izen berezi horren atzean matxinada artistiko moduko bat dagoela esan daiteke. Oinarrian, gure musikatik abiatutako eraldaketa bat dago, eta eraldaketa hori Gorka Hermosaren lana da. Obrak badu musika garaikidearen, klasikoaren, jazzaren, flamenkoaren eta euskal musikaren eragina. Musika originala da, txistuari erronka konplexu bat ipintzen diona. Emaizta berezia da inondik ere", azaldu du Garikoitz Mendizabal txistulariak.

Sustraien Matxinada martxoaren 9an interpretatuko dute, 19:00etan. Mendizabal eta Hermosa ondo lagunduta egongo dira, gainera. "Bikotean arituko gara, musika eskolako ikasle batzuk ondoan izango ditugu-eta gugaz, ilusio handiagaz. Jaialdi polita izango da. Momentu atsegin bat igaroko dugu", gaineratu du Mendizabalek.

Txistularien Eguna, Mallabian
Hilaren 18an Durangaldeko Txistularien Egunaren 68. edizioa ospatuko dute, Mallabian. Bertan, eskualde osotik joandako txistu-

Garikoitz Mendizabalek eta Gorka Hermosak 'Sustraien matxinada' joko dute Hiruzuloren bigarren edizioan

Jaizalek eta Durangoko Udalak Hiruzulo jaialdiaren bigarren edizioa antolatu dute martxoaren 9rako. Kontzertua San Agustin Kulturgunean egingo dute, 19:00etan. Sarrera doakoa da eta ez da aurretiaz eskuratu behar



Jaizale elkarteko kideak eta Durangoko Udaleko ordezkariak martitzeneko aurkezpenean.

lariak, abesbatzetako kideak eta metalen familiako beste musika tresna jotzaile batzuk elkartuko dira. Alde horretatik, txistu transmisioaren haria ez eteteko deia egin dute Jaizaleko kideek. Eta argi izpi batzuk badaudela adierazi dute. "Txistuaren bueltan

harrobia sortzen dabilela ikusten dugu. Txistu akademikoa ondo dago, baina herriko plazaren dinamikara jendea hurbiltzen hasi da", azaldu du Xabier Etxeita elkarteko kideak. Eleder Iturrietak bere egin du esan hori, eta honako hau gaineratu du: "Garrantzitsua da kale-

ko erregistroan, dantza taldeekin, jaietan, plazetan, kontzertuetan egotea. Astiro-astiro bada ere, gazteak Jaizalera hurbiltzen dabilta". Mireia Elkoroiribe alkateak "ohore eta pribilegio handiz" aurkeztu ditu etortzekoak diren ekitaldi biak. Txistuak euskal

kulturari izan duen mendeetako bidea goraiatu, eta tradizio horretan jarraitzeko norabidea markatu du. Hiruzuloren edizio berriak bermatzeaz gainera, alkateak orain ospatzekoa den edizio honetan parte hartzeraz deitu ditu herritarrak.

Gai librean

Zarata

Nork deko giltza? Bariku gaba pasak, martitzen arratsaldeetako, eguaztenetako eta domeketako batzarrak. Barikuetako bileren ondorengo poteoak. Aldarrikapena, barreak, algarak eta negar malkoak. Feminismoa eta euskara. Autogestioa, okupazioa, auzolana. Elektrotxaranga, bingo musikatuak eta batukadak. Cheren koadroa, Marisa eta telebista ikusteko tenedorea. Barrura eta udaletxeko plazako, zein BBVA aurreko kanpaldiak. Gure kuadrillan mozkorrak franko. Es babor quien gana a estribor. Turuta eguna. Ernai, Dominika, Biribilketa, Zaldibarko Jendeak, eskualdeko bizikleta martxa feminista, Durangaldeko gaztetxe topaketak eta Durangaldeko autogestio eguna. Motibazio asteburuak. Bertan lo egiteko gaba pasak eta lo egitera agertzen ez direnak. Euskararen aldeko Korrika, txirringa poteoak eta



Ainhoa Zabarte Narbaiza
Behargina

deneriko bingoak. Monologoak, onak eta txarrak. Ordu luzetako auzolanak. Antzerkiak. Ping-pong eta futbolin txapelketak eta pintxo lehiaketak. Gogoetak, autokritika eta konpromisoa. Kontzertuak, erromeriak, parrandak eta bezperako juerga usaina. Zubipeko txiz parrastadak. Zerrautsa. Garbiketa saio luzeak eta garbitu gabeko kazuelak. San Joan suetako txokolatadak. Preso eta iheslariekiko elkartasuna. Gurea Da Garaipena, Preso Bat Gara Bat. Kuadrilla desberdinekin elkarteak, jendea ezagutzea, ligoteo sana eta kalabazak jasotzea. Kontzertua hasi behar denean whatsapp zabaldu eta "ei jente, igo gaztetxera!" idatzi edo irakurtzea. Patatak zuritzea, sukaldean ikasi eta bazkaria prestatzeko lo geratzea. Goizaldeko eskatzeko solomo janak. Burbujeroak, Budokai Tenkaichi 2 eta La Naranja Mecanica. Chals. Baserritar jantzia, hasierako kamisetak eta zapi gorria. Pegatak,

kondoiak, banderolak eta pankartak. DJ karro, DJ Paki eta zorigaitozko generadorea. Neguko jaietako kuadrillarekin argazkia. Talde argazkiak. Kanbio barik geratzea eta urte batzuk geroago barrako dirua etxean topatzea. Turuta eguna eta kadeneta luzeak. Saltxitxautoaren lehen aldiz agertu zenekoa eta furgoneta erosteko ideia. Turnoak eta hauek betetzeko komeriak. Jasandako lapurreta, erasoak eta autobidetik eroritako kamioiak. Lana, nekea eta erabakiak hartzea. Dantza egin eta aske sentitzea. Zentauroak.

Hogeitun urte eta hamaika bizipen. Ezin aipatu gabe utzi aurretik egondakoak. Udaletxe atzeko lokala, tren estazioko gaztetxea eta Katuetxea. Hasiera askorentzako. Eskola, etxea, babesak eta babes gunea. ZARATA. Haur, gazte, heldu eta zahar, denok elkartuko gara hurrengo astean. 20 urtez zaratie eitten. Zorionak, Zaldibarko Gaztetxea.



Paule Miota: "Denok uste genuen Amandarrikoak alde aterako ziola Maiერი, baina bai zera! Sekulako lasterketa egin zuen eta biak batera heldu ziren"

Maier, zuretzat Paule ere erreferente bat da?

M.M.: Bai, asko laguntzen dit. Batzuetan urduri ipintzen naiz lasterketetan, eta lasaitu egiten nau. Eta indarrak neurtzen irakatsi dit; bestela, batzuetan topera irten eta indarrak barik geratzen naiz.

Batak bestearen zein dohain hartuko zenukete zuontzat?

P.M.: Maierek entrenamendurako duen zorrotasuna hartuko nuke neuretzat. Zeozer gura badu, ez du etsiko lortu arte.

M.M.: Paulek egoera zailetan lasaitasunari eusteko duen gaitasuna hartuko nuke.

Zelako giroa duzue Mugarra Triatloi Taldean eta eskolan?

M.M.: Oso ona. Egia esanda, giro onagaz askoz ere errazagoa da entrenatzea.

P.M.: Aurten ez dakit zer gertatu den, baina neska asko dabil taldean. Gorakada bat izan da. Mutilak baino neska gehiago gaude. Niretzat oso pozgarria da hori. Nire adin bueltako neska bakarra izan naiz urteetan, eta ez nabilen hain gustura. Panorama aldatu egin zait eta pozarren nago.

Zer helburu duzue denboraldiari begira?

M.M.: Egutegi bat eginda daukagu. Nik Lekeitioko triatloian hiru onenen artean geratu eta Espainiako txapelketara sailkatu gura nuke. Ikasteko eta ondo pasatzeko.

P.M.: Nik helburu bat dut. Lehenengoz distantzia olimpiakoko proba bat egiten ahalegintzea. Donostiakoa edo Getxokoa.

“Gurasoengaitik hasi ginen eta gustatzen zaigulako jarraitzen dugu triatloiaren munduan”

Maier Miotak garaipenagaz ospatu du federatu mailako lehenengo duatloia. Paule ahizpagaz osatu zuen taldea Garaiko proban

DUATLOIA • JOSEBA DERTEANO

Paule Miota Muniain (Durango, 2004) eta Maier Miota Muniain (Durango, 2010) Mugarra Triatloi Taldeko harrobi onaren erakusleak dira. Orain asteburu bi, ahizpa biek elkarrengatik duatloia eta irabazi egin zuten, Irati Garaizabalegaz batera.

Garaiko probak gogorra izatearen fama du, baina horrek ez zintuzten kikildu.

Paule Miota: Tira, niri errespetu apur bat ematen zidan. Zirkuitua aztertuta, aldats handiak zeuden! Gainera, bezperan Zornotzako taldekako duatloia ere egin behar nuen. Baina ahizpak konbentzitu egin ninduen.

Maier Miota: Federatu mailan egiten nuen lehenengo lasterketa zen eta! Gogotsu eta ilusio handiz nengo. Apur bat urduri ere bai, egia esanda.

Irabaztea itxaroten zenuten?

P.M.: Ez, inondik inora ere ez. Lekeitioko Amandarri taldekoak gogor dabilta beti eta eurek irabaziko zutelako uste genuen. Maierek lehenengo erreleboa egin behar zuen, eta nik azkena. Denok uste genuen Amandarrikoak alde aterako ziola Maiერი, baina bai zera! Sekulako lasterketa egin zuen eta

eutsi egin zion. Biak batera heldu ziren. Bigarren erreleboan Irati Garaizabal ere bikain aritu zen eta alde aterako ziola aurkariari. Imaginatu zelako erantzukizuna sentitu nuen! Ez nien hutsik egin gura hain ondo aritu ziren taldekideei. Oso urduri jarri nintzen. Baina, tira, neukan dena eman eta irabaztea lortu genuen.

Kasik lasaiago arituko zinen lehenengo erreleboan Maierek denbora dezente galdu izan balu.

P.M.: Dudarik barik! Heldu zenean, esan nion: "Ederra egin didazu!" (barrez). Beragaz entrenatzen naiz eta badakit makina bat dena, baina bere erreleboan aritu zen lekeitiarra ere badakit nor den eta duatloilari bikaina da. Aurrean dabil beti. Gainera, kontua ez da bestea txarto aritu zela, Maierek sekulako maila erakutsi zuela baino.

Ahizpagaz talde berean aritzea berezia izango zen zuentzat.

M.M.: Ilusio handia egin zidan. Beragaz entrenatzea ere berezia da niretzat. Batzuetan piketxoak izaten ditugu ea lehenengo nor heldu, baina pike sanoak dira.

P.M.: Niri ere ilusio handia egin zidan. Urteak neramatzen federatuetara noiz pasatuko zen itxaroten. Maieregaz aritzearren parte

hartu nuen Garaiko proban, eta berak eskatu zidalako.

Zuen gurasoek ere ondo ezagutzen dute duatloien mundua. Haienganatik datorkizue afizioa?

P.M.: Bai. Amak duatloiak egiten zituen eta aita Ironmanak egindakoa da. Eta, jakina, euren gaitasunak datorkigu afizioa. Umetatik ikusi ditugu mundu honetan. Gurasoengaitik hasi ginen, baina gus-


tatzen zaigulako jarraitzen dugu. Gauza bat da probatzea eta beste bat gustatzea. Guk zaletasuna dugu eta gustura gabilta.

Asko ikasi duzue eurengandik?

P.M.: Ama atletismoan ibili da eta bera izan zen korrika egitera animatu gintuena. Aitagaz bizikletan ibili gara, bera ere asko ibilitakoa da eta. Asko ikasi dugu eurenkin eta bie eskertu gura diegu.



Maier eta Paule Miota duatloi banatan lehian. MARIA MENTXAKA



Ainhoa Ruiz de Infante. **EDUARDO AGIRRE**

Ainhoa Ruiz de Infantek txapelketako goiko postuari etsi gura dio Durangon

PILOTA • J.D.

Ezkurdi Jai-Alai pilotalekuak Ados pilota elkarteak antolatzen duen Binakako Pilota Txapelketako jardunaldia hartuko du zapatuan, 18:00etan. Promozio mailako partiduen ondoren, nagusien txanda izango da. Bertan, Ainhoa Ruiz de Infante otxandiarrak eta Leire Galeano antzuolarrak Iera Iturriaga leitzararren eta Oihana Orbegozo azpeitiarraren kontra jokatu dute. Ligaxka erdi joan denean, partidu garrantzitsua da bikote biezat goiko postuei eusteko borrokan. Ruiz de Infante eta Galeano hirugarren daude, eta aurkariak laugarren. Hain zuzen ere, lau bikote sailkatzen dira finalerdietara. Sarrerak egunean bertan eskuratu daitezke.

Durangok Euskal Kopako hiru final hartuko ditu ekainean

Emakumeen Euskal Kopako eta mutilen kadete eta gazte mailetako Lauko Finalak Tabira zelaian jokatu dira

FUTBOLA • J.D.

Durango euskal futbolaren erdigune bihurtuko da ekaineko lehenengo hiru asteburuetan. Euskadiko Futbol Federazioko eta Durangoko Udaleko lankidetzari eskerrak, Tabira futbol zelaian erabakiko dira emakumeen Euskal Kopako eta mutilen kadete nahiz gazte mailetako irabazleak.

Lauko Finalak maiatzaren 31tik ekainaren 16ra arteko hiru asteburuetan izango dira. Asteburu bakoitzean Lauko Final bat jokatu da. Bariku arratsaldean finalerdiak izango dira, eta domeketan finalak. Maiatzaren 31n eta ekainaren 2an emakumeen Euskal Ligako irabazlea erabakiko

da, ekainaren 7an eta 9an gazte mailakoa, eta ekainaren 14an eta 16an kadete mailakoa.

"Gure herriko txoko guztiak kirolez, bizitzaz eta pasioz beteko ditugu", adierazi zuen Mireia Elkoroiribe alkateak eguaztenean Landako Kiroldegian eginiko aurkezpenean. Ekimenerako aukeratu duten *Durango Euskadiko Futbolaren Egoitza* leloa "hori baino gehiago" dela adierazi du alkateak: "Egoitza bat baino gehiago izan gura dugu. Euskal futbolaren etxea izan gura dugu". Euskadiko Futbol Federazioko presidente Javi Landetak denboran iraungo duen lankidetzaz izatea espero duela adierazi zuen.



Durangoko Udaleko, Kultureko eta Euskadiko federazioko ordezkariak aurkezpenean.

Iurreta Txirrindulari Elkarteak 40. urteurrena ospatuko du

Orozketara Igoera, argazki erakusketa eta urteurreneko bazkaria dira urtean zehar egingo dituzten ekimen batzuk



Iurreta Txirrindulari Elkarteak kideen eta sortzaileen familia argazkia.

TXIRRINDULARITZA • J.D.

Iurreta Txirrindulari Elkarteak 1984an sortu zuten. Beraz, 40 urte egin ditu aurten, eta ekitaldi sorta antolatu dute urteurrena ospatzeko. Joan zen domekan aurkeztu zuten aurtengo denboraldia. Ekimenak gaur egungo kideak eta elkarteko sortzaileak batu zituen. Trikitilarien laguntzagaz herrigunetik ibili ziren, eta jubilatuen tabernan eginiko luntxagaz errematatu zuten goiz-eguerdia. Ospakizuna urte guztian zehar izango da. Esaterako, irailean ekimen bi egongo dira: Orozketara

Igoeraren lehenengo edizioa eta argazki erakusketa. Urrian, Dorletako Santutegira joango dira, eta

Joan zen domekan familia argazkia atera zuten gaur egungo kideekin eta elkarteko sortzaileekin


txirrindularitzaren inguruko berbaldi bat ere antolatu gura dute. Azkenik, azaroan, 40. urteurreneko bazkaria egingo dute.

Jokaldia

Laureano Lara

Gaur, nire maisuaren ibilbideari buruz idatziko dut. Laureano Lara Valdepeñasen jaio bazen ere, 1963an, urte bi zituenetik Berrizen bizi da. Berriztarra da. Berrizen eta Euskal Herrian ditu bere sustraiak eta bihotza. Umetan dantza taldean ibili zen. 12 urte zituela, karatea entrenatzen hasi zen Durangon. Gazterik hasi zen lehiatzen, eta Bizkaiko, Euskadiko eta Espainiako Karate txapel-duna izatea lortu zuen.

Une horretan, Europa mailan, full contact izeneko kirol eta arte martzialak garrantzi handia hartu zuen. Aipatutako kirol honetan, karateko eta boxeoko teknikak lantzen dira. Lara gaztea kirol honetaz maitemindu zen, eta Euskadin kirol honen aitzindarietarikoa bat bilakatu zen. Bilbora (Casilla) eta Santande-



Dani Nuñez Morales
Arte martzialak

1985ean Europako txapeldunorde geratu zen, non eta Durangon izandako txapelketan

rrera joan behar izaten zuen boxeoa eta full contact-a ikastera, Durangaldean ez baitzegoen aukerarik. Ikasi eta irakatsi: karate ikastaroak ematen zituen Berriz, Durango, Gazteiz, Bilbo, Bergara eta Euskadiko beste hainbat gimnasiotan. Orduan ereindako haziak bere fruituak eman ditu eta Berrizko Karate Taldeak nahiz Durangoko Kickboxing/Muay Thai Laureano Team taldeak martxan jarraitzen dute gaur egun ere.

Sekulako palmaresa du: full contact-ean lau bider irabazi du Euskadiko txapelketa, eta hiru bider Espainiakoa, 1992tik 94ra. 1985ean full contact iberiarra irabazi zuen eta 1985ean Europako txapeldunorde geratu zen, non eta

Durangon lehiatutako txapelketan. Aipatutakoaz gainera, Europako ranking askotako parte hartzailea izan da, zazpi urtez Thailandiara joan izan da, muay thai arte martzialeko eta hango tradizioak ikastera, eta Espainian kickboxing profesionaleko irabazle izan zen 2017an, Bartzelonan. Orduan agurtu zuen bere ibilbidea. Urte hartan bertan, Berrizko herriak omenaldia antolatu zion.

Pertsona umila eta bihotz handikoa da. Ezagutzen duten denek esaten dute hori. Klubeko ikasleek entrenamenduetarako ekartzen zituen gogoa eta grina miresten dituzte. Bihotzez eskertzen dituzte kirol hauekiko transmititzen dituen maitasuna, errespetua eta balioak. Nik neuk hitzekin adierazi dezakedana baino gehiago eskertzen diot urte haue-tan guztietan irakatsi eta eman didan guztia.

Ibilbide baten aitortza

Tabirakoko emakumeen taldearen 50. urteurrena ospatu dute Landako Kiroldegian



Musika eta elkartasuna

40 Minutu Rock jaialdia ospatu dute joan den zapatuan Durangoko Landako Gunean



ANBOTON ESKELAK IPINTZEKO NEURRIAK ETA PREZIOAK


Eskelak eta oroigarriak paperean

**Izena Abizena
Abizena**

Iurretan hil zen, 2023 ko apirilaren
13an, 85 urte zituela

Testua / olerkia

Familiakoak




**Izena Abizena
Abizena**

Iurretan hil zen, 2023 ko apirilaren
13an, 85 urte zituela

Testua / olerkia

Familiakoak



Prezioa

Paperean edo webgunean **75 €**
Anbotokideek 65 €

Paperean + webgunean **115 €**
Anbotokideek 105 €

2x2
modulo

Prezioa

Paperean edo webgunean **110 €**
Anbotokideek 100 €

Paperean + webgunean **150 €**
Anbotokideek 130 €

3x2
modulo

Eskelak webgunean

ESKELA

**Izena
Abizena Abizena**

DURANGO

2022ko maiatzaren
30ean hil zen.

ESKELA

Izena Abizena Abizena

Testua /Olerkia

Durango, 2022ko maiatzaren 30ean

Eskelak ipintzeko moduak:

- Anbotoren bitartez: **946 810 658** telefono zenbakira deituta edo **anboto@anboto.org**-ra idatzita
- Anbotoko bulegora etorrira: Bixente Kapanaga, 9 behea
- Ehorztetxearen bitartez

Eguazteneko 14:30ak arte jasoko dugu informazioa.

Botikak

BARIKUA, 1 - 09:00-09:00

SAGASTIZABAL, ASKATASUN
ETORB. 19 - DURANGO

RUIZ, EL ALTO-BIDE ZAHAR
14 - ZORNOTZA

09:00-22:00

SANCHEZ, URBITARTE
POLIGONOA, 4 P8 - ABADIÑO

SARASKETA, LUIS URRENGOETXEA
5 - ZORNOTZA

IRUARRIZAGA, SAN MIGUEL
15 - ZORNOTZA

ZAPATUA, 2 - 09:00-09:00

MUGICA, ANDRA MARIA 9 - DURANGO

GOIRIA, SABINO ARANA 6 - ZORNOTZA

09:00-13:30

BALENCIAGA, EZKURDI
PLAZA 8 - DURANGO

NAVARRO, ARTEKALEA 6 - DURANGO

BAZAN, URIBARRI 5 - DURANGO

CAMPILLO, MONTEVIDEO
ETORB. 24 - DURANGO

ETXEBARRIA, MONTEVIDEO
ETORB. 2 - DURANGO

GAZTELUMENDI, J.A.
ABASOLO 2 - DURANGO

SARRIA, SASIKOA 17 - DURANGO

DE DIEGO, INTXAURRONGO
22 - DURANGO

LARRAÑAGA-BALENTZIAGA,
BERRIO-OTXOA 6 - ELORRIO

FARMAZIA MATIENA,
TRAÑABARREN 15 - ABADIÑO

RUIZ, EL ALTO-BIDE ZAHAR
14 - ZORNOTZA

MELERO, SAN PEDRO 31 - ZORNOTZA

IRUARRIZAGA, SAN MIGUEL
15 - ZORNOTZA

GUTIERREZ, TXIKI OTAEGI 3 - ZORNOTZA

09:00-14:00

IRIGOIEN, BIXENTE
KAPANAGA 3 - IURRETA

09:00-22:00

SANCHEZ, URBITARTE
POLIGONOA, 4 P8 - ABADIÑO

SARASKETA, LUIS URRENGOETXEA
5 - ZORNOTZA

DOMEKA, 3 - 09:00-09:00

BALENCIAGA, EZKURDI
PLAZA 8 - DURANGO

GOIRIA, SABINO ARANA 6 - ZORNOTZA

09:00-22:00

SARASKETA, LUIS URRENGOETXEA
5 - ZORNOTZA

ASTELEHENA, 4 - 09:00-09:00

GAZTELUMENDI, J.A.
ABASOLO 2 - DURANGO

GOIRIA, SABINO ARANA 6 - ZORNOTZA

09:00-22:00

SANCHEZ, URBITARTE
POLIGONOA, 4 P8 - ABADIÑO

SARASKETA, LUIS URRENGOETXEA
5 - ZORNOTZA

IRUARRIZAGA, SAN MIGUEL
15 - ZORNOTZA

MARTITZENA, 5 - 09:00-09:00

IRIGOIEN, BIXENTE
KAPANAGA 3 - IURRETA

GOIRIA, SABINO ARANA 6 - ZORNOTZA

09:00-22:00

SANCHEZ, URBITARTE
POLIGONOA, 4 P8 - ABADIÑO

SARASKETA, LUIS URRENGOETXEA
5 - ZORNOTZA

IRUARRIZAGA, SAN MIGUEL
15 - ZORNOTZA

EGUAZTENA, 6 - 09:00-09:00

SARRIA, SASIKOA 17 - DURANGO

GOIRIA, SABINO ARANA 6 - ZORNOTZA

09:00-22:00

SANCHEZ, URBITARTE
POLIGONOA, 4 P8 - ABADIÑO

IRUARRIZAGA, SAN MIGUEL
15 - ZORNOTZA

SARASKETA, LUIS URRENGOETXEA
5 - ZORNOTZA

EGUENA, 7 - 09:00-09:00

UNAMUNZAGA, MURUETATORRE
2C - DURANGO

GOIRIA, SABINO ARANA 6 - ZORNOTZA

09:00-22:00

SANCHEZ, URBITARTE
POLIGONOA, 4 P8 - ABADIÑO

SARASKETA, LUIS URRENGOETXEA
5 - ZORNOTZA

IRUARRIZAGA, SAN MIGUEL
15 - ZORNOTZA

Zorion Agurrak

ZORIONAK@ANBOTO.ORG • EGUAZTENEN 14:00AK ARTEKO EPEA

Zorionak
guztioi!



GOZATU GOZATEGIA

Zorionak, **Ari (968. alea)**! Hamabostean behin zotz egiten dugun tarta zuri egokitu zaizu. Oparia eskuratzeko txartela gura duzunean jaso dezakezu lurretako gure egoitzan: Bixente Kapanaga, 9an.

Erimodo, 11 DURANGO

Tel.: 946 201 663

661 40 14 00

gozatudurango@gmail.com

Gozatu Gozategia

gozatugozategia



Zorionak, **Urko!** Legorako txikiak 4 urte egin ditu otsailaren 29an. Mosu potolo bat maite zaitugun guztion partez, artista! Batez ere, Martin, Jakes eta Haizearen partez.



Zorionak, **Ekai,** gaur esku bete urte. Besarkada potolo bat guztion partez!

Eguraldia

ZAPATUA 6° / 12°



ASTELEHENA 3° / 13°



EGUAZTENA 4° / 14°



DOMEKA 4° / 8°



MARTITZENA 4° / 13°



EGUENA 4° / 16°



Eskelak



Mila Gerenabarrena Sabarte

(Sabino Velar Garate jaunaren alarguna)

- Goian Bego -

Durangon hil zan, 2024ko otsailaren 26an, 86 urte ebazala.

Seme-alabak: Sabin eta Josefi, Mariaje eta Andres.

Ilobak: Ibai, Julene eta Ander.

Neba-ahizpak: Iñaki(t), Tere eta Isa.

Koinatu-koinatak eta beste senideak.

ETXEKOAK



Eutsi gureari!

Nafar hegoaldeko uzta eskutik eskura

otsailak 25 - martxoak 13

Eskatu Nafarroa hegoaldeko oliba-olio birjina estra, arrosa, pasta, kontserbak, lekaleak eta ardo loteak euskaraz etiketatuta eta ekozilearen jatorrizko prezioan.



errigora.eu



“Oso gogoko dut neure lana, jendeagaz dudan hartu-eman, batez ere”

laz mende laurdena bete zen Durangoko Etxebarria liburu eta paper denda zabaldu zutela. Hamarkada bat baino gehiago da Eva Etxebarriak dendaren ardura daramala



Enrique Etxebarria Arkarazo

Jubilatua

ABADIÑO | 1944

Eva Etxebarria Lauzirika

Dendaria

ABADIÑO | 1971

DURANGO • AITZIBER BASAURI
Durangoko Etxebarria liburu eta paper denda familia negozioa da. Prentsa eta aldizkariak saltzen dituen laugarren belaunaldikoa da Eva Etxebarria. Birraititak, Eleuterio Etxebarriak, Abadiñon zabaldu zuen prentsa eta aldizkariak saltzeko denda, joan zen mendeko 40ko hamarkadan. Eta denda hartan hazitakoa da Enrique, amak dendaren ardura hartu ondoren. Enrique eta Eva aita-alabak elkartu dira solasaldirako.

Eva, gaur ere goizean goiz hasi zara.
Eva Etxebarria: Bai. Aste barruan 04:45ean jaikitzen naiz, denda 05:45ean zabaltzeko. Asteburuetan 06:30ean zabaltzen dut. Baina

pozik jaikitzen naiz. Asko gustatzen zait goizean goiz ibiltzea; ordu txiki horietako lana oso lasaia da. Oso gogoko dut neure lana, jendeagaz dudan hartu-eman, batez ere. Horixe du denda txiki batek. Arratsaldean geroago sartzen naiz, 18:00 aldera. Asteburuan jai hartzen dut, baina neuk zabaltzen dut beti.

Familiako hainbat belaunaldi aritu zarete prentsa saltzen.

Enrique Etxebarria: Bai. Gure amak aititaren lekukoa hartu zuen Abadiñoko dendan. Orduak ematen nituen han amagaz, berak eroaten zuen denda. Gero, emazteak eta biok hartu genuen. Emazteak gehiago, nik galdategian lan egi-

“Gure amak aititaren lekukoa hartu zuen Abadiñoko dendan. Orduak ematen nituen han amagaz”
ENRIQUE ETXEBARRIA

ten nuen eta. Garai batean, postari ere ibili nintzen Abadiñon.

Eva: Laugarren belaunaldikoa naiz ni. Garai batean, hiru denda eroaten genituen. Hiru neba-arreba gara, eta, guban pentsatuz, aitik bigarren liburu denda bat zabaldu zuen Durangon. Eta hirugarren bat gero. Iaz 25 urte bete ziren az-

ken hori zabaldu genuela. Zabalik dagoen bakarra da.

Kontsumo ohiturak aldatu dira.

Enrique: Asko aldatu da dena, bai.

Eva: Gaur egun Internet bidez kontsumitzen da asko, prentsa ere bai. Garai batean, aldizkari mordoa egoten zen. Eta bezeroekin hartu-eman hotzagoa da, orokorrean. Bestalde, lehen salmenta puntu gutxiago zegoen; gatxa zen prentsa eta aldizkariak saltzeko baimena lortzea. Gaur egungo egoerak ez du zerikusirik lehengoagaz. Baita komisio bat ordainduta ogiagaz egiten den banaketari dagokionez ere. Lehia ez da lehengoa bezain garbia. Gainera, lehen, kalean bertan, tabernetan, irakurtzen zen asko. Orain, tabernen erdiek baino gehiagok ez dute prentsarik; batzuek harpidetu eta Internet bidez irakurtzeko aukera ematen diete bezeroei.

“Tabernen erdiek baino gehiagok ez dute prentsarik; batzuek harpidetu eta Internet bidez kontsumitzeko aukera ematen diete bezeroei”
EVA ETXEBARRIA

Prentsez gainera, beste hainbat gauza saltzen duzue.

Eva: Garai bakoitzera egokitu behar izan dugu, baina paper denda da batez ere: prentsa, aldizkariak, jolas didaktikoak, eskola-bulego materiala, liburuak... Abadiñon, amak drogeria gauzak ere saltzen zituen, eta litxarre-riak... Denerik, janaria izan ezik.

Paperak utsiko dio aro digitalari?

Eva: Bai. Papera garestitu egingo da, produkzioa jaitsi egin delako, baina ez da desagertuko. Herrialde batzuetan, digitala utzi eta paperera bueltatu dira. Bada, baliteke paperak berriro ere indarra hartzea.

Zelan ikusten duzu etorkizuna?

Eva: Jubilatuta arte lanean jarraituko dut. Gustuko dut lana, baina ez da bosgarren belaunaldirik egongo.

Lauhortza

Mertxe Mujika Balanzategi
AEK



Durungaldean lana euskaraz

Durungaldean euskara garrantzitsua da. Gure identitatean, zereginetan eta sormenean eragiten digu euskarak. Beraz, duda barik, Durungaldea beselakoa izango litzateke hain barik.

Euskararen ezagutza handia da gure eskualdean; gazte gehienek jakin badakite. Baina, dugun erronka handiena da erabilera indartzea. Horretarako gakoa da ekosistema. Eta horixe da, hain zuzen, gure artean ezaguna bihurtzen ari den LANDUE egitasmoaren egitekoa: lan esparruan euskara ikusgarri egitea, erabiltzea eta bere balio nabarmentzea. Beharrez ematen dugu helduok gure bizitza sozialaren parterik handiena; orduan, ez bairik gabe, helburu estrategikoa da euskara txertatzea lan munduan.

Oraingo 26 enpresa eta eragile agertu dira prest erronka horrekin bat egiteko, eta euskararen ekosistema hedatzeko zein indartzeko pausoak ematen hasiak dira. Bakoitzak bere neurrian eta abiaduran, bere ezaugarriak, beharrak eta erritmoak kontuan hartuta, konpromiso zehatzak hartu dituzte enpresako hizkuntza paisaia eta dokumentazioa euskalduntzeko, sare sozialetan euskara gehiago erabiltzeko, langileen arteko harremanetan ohitura berriak sortzeko, hizkuntzaren berdintasuna bermatzeko, ...

Garrantzitsua da LANDUEko komunitatea handitzea. Elkargune horretan diharduten enpresek euskararen aldeko apustua egiten dutenean, are eta aurreratuago, profesionalago erakusten dute beren burua. Hala, zerbitzuaren kalitatean eragiteaz gain, hizkuntzaren zabalakundean ere gako bihurtzen dira. Hartara, Durungaldea gero eta euskaldunago izango da.



SAN ROKE BARRIA

ETXEBIZITZA AUKERA ZABALA
3 LOGELA
295.000€ -TIK +BEZ

ERAIKUNTZA LANAK HASITA



Salmenta bulegoa
Astxiki kalea 1, Durango

946 462 041
www.sukia.com

sukia
Zure etxean zaude Estás en tu casa